



EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2021-2024

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2021-2024

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<<https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin-q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001>>.

Argitaraldia: 1a, 2021eko xxx

Ale-kopurua: xxx ale

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta
maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: xxx

ISBN: 978-84-457-xxx

Legezko Gordailua: x xxx-2021

Euskararen Agenda Estrategikoa

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu zuen
2021eko azaroaren 2an egindako bilkuran.

Aurkibidea

HITZAURREA	9
1. SARRERA	11
2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	19
3. HELBURU ETA ARDATZ ESTRATEGIKOAK	37
4. GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK	45
5. BALIABIDE EKONOMIKOAK	55
6. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANA	57
7. GOBERNANTZA, KUDEAKETA ETA JARRAIPENA	69
8. OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA	75

HITZAURREA

Eginkizun sozial konplexua da, berez, hizkuntza normalizazioa. Gizarte baten bizitzaren alor guztiak ukitzeaz gain, pertsona guztion eta bakoitzaren jokaera eta jarrera intimoetan eragiten du, modu ukaezinean. Horrez gain, baditu ukipen-eremu nabarmenak pentsamendu soziopolitikoarekin. Osagai guztiak, alegia, jarduera liskartsu bilakatzeko, eta, ondorioz, eraginkorra ez izateko; ez bada adostasunaren etengabeko bilaketa zintzoan oinarritzen eta, horrez gain, erarik gardenenean kudeatu ezean.

Bi helburu horien mamian, adostasunaren eta gardentasunaren muinean, errotzen da hizkuntza politika zorrotz planifikatu beharra. Euskararen bizi-indarra eta hizkuntza bizikidetzat zaintzea ardatz dituen hizkuntza politika batek ezin du horretan huts egin, gizarteak guztiz arbuatuko bailuke bestela.

Era berean, alferrikakoa izango litzateke, goitik behera, erakunde publikoen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzan oinarritzen ez den hizkuntza politika, edota ekimen publiko-pribatuaren osagarritasuna aintzat hartzen ez duena.

Oinarri horien gainean hartu du bermea Eusko Jaurlaritzak bere hizkuntza plangintzaren lanabes nagusiak zehazterakoan, eta, jakina, horietan funtsezkoena *Euskararen Agenda Estrategikoa* da.

Agenda hau 2021-2024 aldirako osatu da eta, aurreko biak bezala, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu du. 2013-2016 legealdian euskarak bere lehen agenda estrategikoa ezagutu zuenetik hona, euskararen aurrerabideak urrats

sendoak egin ditu plangintza arlo guztietan, arreta berezia eskainiz, beti ere, erabilerari, eremu formalean zein ez-formalean, eta euskal hiztunen aktibazioa indar berezi batez bultzatuz, *Euskaraldia* bezalako ekimen arrakastatsuen bitartez.

Agenda berri hau harri bat gehiago jartzera dator euskararen normalizazioak behar duen plangintza-erakinean, eta era ezinago praktikoan islatzen du Eusko Jaurlaritzaren euskararekiko konpromisoa. Horren adierazgarri, datu bat baizik ez: agenda berriaren lehen urterako, 2021erako alegia, Eusko Jaurlaritzak 130,1 milioi euro esleitu du agendak eragindako jarduerarako, lehen agendak lehen urterako esleitutakoa baino % 16,4 gehiago, eta bigarren agendak baino % 15 gehiago.

Hazkunde bide berean jarri nahi ditugu, jakina, dirutan baino hobekiago eragingarritasun sozialeko parametrotan neurtzen diren gainerako balioak, hala nola euskal hiztunen aktibazioa, euskal herritar guztion inplikazioa eta publiko-pribatu lankidetzak.

Euskararen gizarteak, euskara eleaniztasunaren ardatz nahi duen euskal gizarteak ez luke, honezkero, ekimen planifikatu eta gardena oinarri ez lukeen jokabiderik onartuko, eta erakunde publikoetan maila bateko zein besteko ardurarik dugunok argi izan behar dugu etengabeko plangintza dela bide bakarra, besteak beste etengabeko neurketa eta ebaluazioa dakarrelako.

Horretara dator, beraz, *Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024*, pandemiaren ondorengo aro berria izan daitekeenari begira jarria, eta beti gidatu gaituen irizpidean oinarritua: euskara, funtsezko lanabesa euskal gizartegintzan.

Bingen Zupiria Gorostidi

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua



SARRERA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak hizkuntza eskubide batzuk aitortzen dizkie herritarrei eta betebeharrak ezartzen dizkie administrazioei, hizkuntza eskubide horiek bete eta berma ditzaten. **Xedea** da hizkuntza eskubide horien erabateko bermerantz aurrera egitea eta euskara gure bizitzako eremu eta une guztietan erabili ahal izatea ahalbidetzea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak egiteko eta jardun-arlo batzuk ezartzen dizkio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari, hala nola hizkuntza politika eta euskara sustatzea. Hizkuntza bizikidetzaz gero eta orekatuagoa eraikitzen lagundu nahi duen hizkuntza politika; euskararen erabilera gero eta eremu gehiagotan sustatuko duena, lankidetzaz oinarrituta, bai euskararen esparruko eragileekin, bai gainerako hizkuntza gutxituek dituzten eragile askotarikoekin.

Horri lotuta, *Euskararen Agenda Estrategikoaren misioa* da euskararen normalizazioan aurrera egiteko baliabidea izatea; euskararen ezagutza areagotzeko eta euskararen erabilera indartzeko, gizarte aktibazioa sustatuz arlo guztietan, euskara erabiltzea arau sozial normalizatu bihurtu dadin. Horretarako, aintzat hartu behar dira orain arte egindako ibilbidea –euskararen bilakaera soziolinguistikoa– zein aurreko legealdiko Agendaren ebaluazioa (ikus 2. atala).

2020ko urriaren 28an, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak legealdi hasierako agerraldia egin zuen Legebiltzarreko Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean, Sailaren legealdiko ildo nagusien berri emateko. "Euskararen eta gaztelaniaren arteko desorekarik gabeko gizartea irudikatzen dugu guk, non haur, gaz-

te zein helduek normaltasunez ulertu, jakin eta erabili ahal izango dituzten EAEko bi hizkuntza ofizialak, edozein eremutan edo unetan.”

2020ko abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguneko adierazpen bateratuak jasotzen duenez, “euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza. Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharri zeharko erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.”

Eusko Jaurlaritzak euskarari garrantzia aitortzen dio. Horren erakusgarri dira, besteak beste, azken urteotan garatu dituen *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana*, *Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016* eta *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020*, baita oraingo *Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024* hau ere.

Legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak **euskararen zeharkakotasuna** azpimarratu nahi du, hizkuntza politikak duen garrantziaz gain. Euskarak zehar-lerroa izan behar du; euskararen erabilera bermatu behar da administrazioan zein herritarrekiko harremanetan. Horregatik, euskara kontuan izan behar da sail guztietako plan estrategiko eta proiektu orotan. Azken batean, Eusko Jaurlaritza osoari dagokio Agenda, eta Eusko Jaurlaritzari dagokio euskararen normalizazioaren aldeko politiketan eragitea, barrurantz nahiz kanporantz.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) euskara sustatzeko hizkuntza politika bideratu eta euskararen zeharkakotasuna bermatzeko ahalegina egiten ari da administrazioaren eremu guztietan zein gizarte osoan, adostasun politiko eta sozial zabalean bilatuz, horren eskutik baitatuz gizartearen onespena eta herritarren atxikimendua.

Euskara bere lurraldean bertan bultzatzeaz gain, hizkuntza gutxituekiko harremanak ere aintzat hartzen jarraitu nahi du HPSk. Jarraipena emango zaio, beraz, hizkuntza aniztasuna hizkuntza gutxituen ikuspegitik Europan eta munduan sustatzeko lanari.

Horrez guztiaz gain, hizkuntzaren eta genero berdintasunaren gainean gogoeta egiteak eta aliantzak bilatzeak lagundu egingo du gure politikak sendotu eta lan-kidetza esparruak zabaltzen, eta esparru horretan sakontzen jarraituko dugu, uste baitugu asko dugula elkarrekin eraikitzeko eta eragiteko.

2020-2024 Gobernu Programa

2020ko urriaren 13an, Iñigo Urkullu lehendakariak XII. legegintzaldirako *2020-2024 Gobernu Programa* aurkeztu zuen, datozen lau urteetarako euskal gizartearekin hartutako konpromisoak jasotzen dituen dokumentua.

Gobernu Programak 10 herri-helburu ezartzen ditu; 6. helburua euskarari lotuta dago: **euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea**.

Helburu nagusi hori lortzeko, euskararekiko oinarrizko konpromisoak ardatz honetan batu dira:

► II. ardatza. **Pertsonak. Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte eta kultura-politikak, bizikidetzeta eta giza eskubideak.**

18. jarduketa-arloa. Kultura, Euskara eta Kirola

18.2 Euskara

118. konpromisoa. *Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabileran eragitea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.*

1. ekinbidea. Indarrean dagoen *Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren* ebaluazioa egitea eta, gizarte-eragile nagusiekin, hurrengo aldirako hizkuntza politika zehaztuko duen plangintza egitea eta adostea.

2. ekinbidea. Legegintzaldi honetako *Euskararen Agenda Estrategikoa* onestea eta garatzea.

3. ekinbidea. Euskararen ezagutza handitzeko programak eta laguntzak areagotzea, oro har, egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasuna ezarriz eta C1 mailara arteko doakotasuna eskainiz 16 eta 30 urte bitartekoentzat.

4. ekinbidea. Helduen kontziliazio-premietara hobeto egokitutako eskaintza bat sustatzea, ikaskuntza-modalitate erdi-presentzialen bidez eta plataforma birtualen erabileraren bidez, betiere euskaltegiekin elkarlanean.

5. ekinbidea. Helduen euskalduntze-sistemaren finantzazioa indartzea eta handitzea, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko euskaltegien finantzaziorako ohiko deialdien bidez.

6. ekinbidea. Migratzaileei zuzendutako euskara ikasteko eta hobetzeko programak areagotzea, bai eremu sozioekonomikoan, bai hezkuntzaren eremuan, horien gizarteratzean eta laneratzean laguntzeko xedez.

7. ekinbidea. *Euskaraldia* bezalako euskararen erabilera sustatzeko programak indartzea, bai eremu formalean, bai eremu ez-formalean: aisialdia, gizarte-hedabideak, kirola, familia, hezkuntza sistema, kultura...

8. ekinbidea. Hizkuntza Teknologia Plana onestea eta garatzea eta euskararen presentzia, euskarazko edukien sorkuntza eta horien ingurune digitaleko erabilera sustatzea.

9. ekinbidea. Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2020-2023 garatzea.

10. ekinbidea. Adostasunetik abiatuta, herritarrei euskara bizitzaren eremu guztietan erabiltzea ahalbidetzen dieten hitzaldi positiboak eta gizarte aktibazioa lantzea. Horretarako, euskararen zeharkakotasuna azpimarratuko da eta Gobernuaren sail eta arlo guztien, sektore publikoaren eta, orokorrean, gizartearen inplikazioan sakonduko da (industria, berdintasuna, lanbide-heziketa, unibertsitatea, merkatari-tza, turismoa...). Erakunde arteko lankidetzatik lan egingo da.

11. ekinbidea. Hizkuntza gutxituaren ezagutzari eta erabilerari dagokienez, gizarte-eremu desberdinen analisia bermatzen duten ikerketak sustatzea eta *Euskararen Adierazle Sistema* elikatzen jarraitzea.

119. konpromisoa. *Hizkuntza eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatu-tako hizkuntza bizikidetzatza baterantz aurrera egitea.*

1. ekinbidea. Administrazio Publikoetan Euskara Normalizatzeko VII. Plana (2023-2027) diseinatzea eta ezartzea, herritarrek administrazioarekin duten harremanean hizkuntza eskubideak errespetatzea helburu; edonola ere, pertsonak nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukaten erabateko askatasuna bermatuko da. Planaren beste xede bat izango da euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egitea, hain zuzen ere, sektore publikoaren lanerako hizkuntza gisa.

2. ekinbidea. Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretuak onestea.

3. ekinbidea. Sozietate publikoentzako normalizazio plana abiaraztea.

4. ekinbidea. BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria sustatzea eta beharrezko egokitzapenak egitea horren eraginkortasuna handitzeko.

5. ekinbidea. Urratsak ematen jarraitzea *Elebide* zerbitzuaren bidez herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

6. ekinbidea. Neurriak hartzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta sektoreko eragileekin adostasunak lortzeko.

120. konpromisoa. *Erakunde arteko lankidetzatza indartzea euskararen lurralde guztietan.*

1. ekinbidea. Erakunde arteko eta EAEko eragile pribatuekiko lankidetzatza eta koordinazioa indartzea koordinazio-organo desberdinen bidez (Euskararen Aholku Batzordea eta HAKOBA).

2. ekinbidea. Euskararen lurraldeen arteko lankidetzatza eta elkarlana indartzea, 2017an adostutako *Hiruko Itunaren* bidez.

3. ekinbidea. Hizkuntza politikak koordinatzea euskararen erabilera komuna eta nagusia den eremu geografikoetako erakunde publiko eta pribatu desberdinen artean, hizkuntza errealitate hori finkatzeko eta indartzeko.

4. ekinbidea. Nazioartean hizkuntza desberdinen arteko lankidetzaz sustatzea, eleaniztasunarekin eta hizkuntzen arteko bizikidetzarekin lotutako nazioarteko programetan eta foroetan parte hartuz.

Horrela bada, *Euskararen Agenda Estrategikoa*ko Gobernu Programan euskararekiko hartutako konpromisoak eta ekimenak jasotzen ditu oinarrian, eta zehaztu diren egiteko guztiak legealdi honetan abian jartzekoak edota gauzatzekoak dira.

Euskara zehar-lerroa dela kontuan izanda, Gobernu Programaren beste konpromiso batzuetan ere badira euskarari berariaz lotutako ekimen batzuk. Horregatik, beharrezkoa da lotura horiek kontuan izatea eta garatzea.

Hezkuntza Saila

54. konpromisoa. *Eleaniztasunean aurrera egitea, euskara hartuz ardatz nagusitzat.*

1. ekinbidea. Euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza finkatzea, hezkuntza sistema eleaniztun baterantz aurrera eginez. Sistema horrek euskara edukiko du ardatz nagusi gisa eta hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak txertatuko ditu ingelesaren prestakuntzan Lehen Hezkuntzatik; horrekin batera, ikasleen ingelesaren ezagutza hobetzeko jarduerak indartuko dira. Beraz, horretarako, zentro guztietan hedatuko dira hizkuntza proiektu eleaniztunak, horien errealitate soziolinguistikora egokituz eta euskara hartuz ardatz nagusitzat.

61. konpromisoa. *Etorkizunari aurrea hartzen dion lanbide-heziketa baterantz aurrera egitea.*

3. ekinbidea. Lanbide-heziketaren eremuan, aurrerapenak sustatzea ikasleen euskarazko eta eleaniztasunezko prestakuntzan, bigarren hezkuntzaren hizkuntza-jarraitutasuna eta integrazioa lortzen saiatzeko.

66. konpromisoa. *Zuzentasuna, berdintasuna eta euskara sustatzea euskal unibertsitrate-ekosisteman.*

3. ekinbidea. Euskarazko prestakuntza eta ikerketa sustatzea.

4. ekinbidea. Online prestakuntza-eskaintza bultzatzen duten programak indartzea, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

5. ekinbidea. Graduetan eta graduondokoetan titulazio eleaniztunen ezarpena sustatzea.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila

99. konpromisoa. *Pertsonengan zentratutako justizia hurbilagoa eta errehabilitazioa sustatzea.*

6. ekinbidea. Aurrera egitea hizkuntza normalizaziorako planean, Euskadiko hizkuntza ofiziala den aldetik, herritarrak justiziaren eremuan euskara erabiltzeko duten eskubidea betearazteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

112. konpromisoa. *Euskadin sorkuntza eta produkzio kulturalak sustatzea, kulturaren arloko euskal sortzaileak, artistak eta profesionalak babestuz, horien lan-baldintzen hobekuntzan eta profesionalizazioan sakonduz.*

1. ekinbidea. Kulturaren sorkuntzarako eta produkziorako babes publikoa mantentzea eta eguneratzea, bereziki sustatuz euskarazko kultura eta emakumeen ahalduntzea sorkuntzaren eta kulturaren eremuan.

116. konpromisoa. *Euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartzea.*

1. ekinbidea. Etxepare Euskal Institutuaren bidez, euskara eta euskal kultura irakasteko programak indartzea unibertsitateetako katedren eta irakurletzen sarearen eta Euskara Munduan programaren bitartez, euskal artistek nazioarteko programazioetan eta jaialdietan parte hartuz eta atzerrian jarduera kulturalak produzituz.

117. konpromisoa. *EITBren zerbitzu publikoaren izaera mantentzea eta bermatzea, komunikazio pluralerako eta hizkuntzaren normalizaziorako bitarteko gisa.*

2. ekinbidea. Beharrezko erreformak burutzea, EITB benetako zerbitzu publikoa izan dadin, ikus-entzunezkoa, modernoa eta herritarren premia eta eskari berrietara egokitutakoa, objektiboa, lehiakorra eta eraginkorra. Hala, horren oinarritzko helburuetako bat izango da errealitate soziolinguistikoa kontuan hartzea eta euskararen normalizazioa sustatzea, berdintasun-printzipioa eta aniztasun politikoa, erlijiosoa eta kulturala errespetatuz.

122. konpromisoa. *Jarduera fisikoak eta kirolak berdintasunerako eta gizarteratzeko duten potentziala baliatzea eta euskara sustatzea.*

3. ekinbidea. Euskararen presentzia eta erabilera indartzea kirol-espazioetan eta jarduera fisikoko espazioetan, aisialdia eta errealizazio pertsonala euskararekin lotzeko ingurune egokia delako. Era berean, euskal kirolarien hizkuntza eskubideak defendatzeko lan egingo dugu.

Gobernu Programaren II. ardatzean jasotako euskararekiko konpromiso nagusiez gain, IV. ardatzean ere aipamena egiten zaio euskarari:

▶ IV. ardatza. Autogobernua. Autogobernu handiagoa eta hobea

22. jarduketa-arloa. Euskadi Basque Country

Lehendakaritza

139. konpromisoa. *Euskadi - Nafarroa - Akitania Berria Euroeskualdea bultzatzea.*

3. ekinbidea. Nafarroarekiko eta Communauté d'Agglomération du Pays Basque edo Iparralderekiko lankidetzaz indartzea kulturaren eremuan, kirolean eta, bereziki, euskararen eremuan, mugaren bi aldeetako "euskararen lurralde" guztien hizkuntza komun gisa.

Beste lotura batzuk

Legegintzaldi honetako Gobernu Programaz gain, beste dokumentu batzuk ere kontuan izan behar dira.

Eusko Jaurlaritzatik kanpo, Gobernu Programan jasotako konpromiso horiek guztiek bat egiten dute Nazio Batuetako Erakundearen *Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan* zehaztutako helburuekin. Zehazki, garapen jasangarrirako 4. helburuan -Kalitatezko Hezkuntza- txertatzen dira HPSri euskara sustatzeko beren-beregi dagozkion 118., 119. eta 120. konpromisoak.

Horri lotuta, bat egiten du Unesco Katedraren proposamenarekin -17+1 helburua: hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea-: hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta aintzatespena bermatzea pertsonen eta gizartearen garapenerako. Izan ere, 2030 Agendak "alde batera uzten du hizkuntzen alorra eta oso gutxi hartu du kontuan kultura garapen iraunkorrerako funtsezko elementu gisa. Doktrinak eta esperientziak behin eta berriro erakutsi dute hizkuntzak ekonomiaren motore direla, giza-kohesioaren eta bakearen bultzatzaile eta azken batean giza eskubide kontu bat; horregatik, garapen iraunkorrek nahitaez kontuan hartu behar ditu."

Eusko Jaurlaritzan bertan, Lehendakaritzak *Euskadi-Basque Country Estrategia 2025* garatuko du. Euskal kultura eta euskara sustatzen laguntzeko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak estrategia horretan parte hartuko du, Etxepare Institutuaren bidez bereziki.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko urriaren 28ko Legebiltzarreko Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean esan bezala, "konpromiso guztiak zeharkatzen ditu erronka zabal batek: euskararen prestigio soziala hobea-

tzeko diskurtsoen eraikuntzak eta garapenak". Gainera, "orain dela 30-40 urteko euskal gizartea eta egungoa ezberdinak dira oso eta euskarak irabazteko dituen eremuak ere aldatzen doaz. Eremu horietara eraman behar dugu euskara, modu baikorreetan, naturalean, eraikitzailean, kohesionatzailean. Gizarteak euskara lagun eta bidelagun sentitu behar du. Erakundeon arteko lankidetzan sakonduz, eta guztion artean, gai izan behar gara diskurtso sozial positibo horiek eraikitzeko."

2.

EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 ez da hutsetik hasten. Azken lege-gintzaldi bietan bidea egin du, eta oraingoan ere ibilbide horri jarraitu nahi zaio.

Gizarte-testuinguru orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko egoera

Egungo gizartean aldaketa ugari eta sakonak gertatzen ari dira. Batetik, azken 70 urteotan, etorkinen etorrera handiko bi bolada ezagutu ditu EAEk. Lehena, XX. mendearen bigarren erdialdean gertatu zen; etorkin ia guztiak Espainiako lurraldeetakoak izan ziren. Bigarrena, XXI. mendearen lehenengo hamarkadan gertatu zen; orduan, etorkin gehienak atzeritik etorri ziren. Eustaten 2020ko datuen arabera, EAEko biztanleen %11 atzerrian jaioa da.

Etorkinen gaiarekin batera, gizartearen mugimenduen artean bada arreta eskatzen duen beste kontu bat: EAEko udalerrri batetik beste batera bizilekua aldatu duten biztanleena. Mugimendu horiek ez dute eragin berezirik biztanle asko dituzten gune soziolinguistikoetan (2. eta 3. guneetan, hain zuzen); bai, ordea, biztanle gutxi dituzten guneetan, bertako biztanleen ezaugarri linguistikoetan eragin dezaketelako. Adibidez, Eustaten datuen arabera, 2018an 1.694 pertsona atera ziren 4. gunetik beste gune batera bizitzera joateko. Aldi berean, 1.658 pertsona joan ziren 4. gunera

bizitzera, hau da, joandakoen ia kopuru bera. Horien artean, 3. gunetik joandakoak % 67 izan ziren, eta 2. gunetik joandakoak % 33.

Bestetik, Eustaten 2020ko datuek erakusten dutenez, jaiotze-tasa oso txikia da EAEn eta, ondorioz, biztanleria asko zahartu da. Adineko pertsonak gero eta gehiago dira (65 urtetik gorakoak % 22,5 dira); gazteak, aldiz, gero eta gutxiago (15 urtetik beherakoak % 13,8 dira). Euskararen irabaziak gazteen artean gertatzen ari dira batez ere, baina gizarte osoarekiko duten pisu demografiko txikia dela eta, gazte euskaldunen hazkundeak ez du hainbesteko isla gizartean. Gainera, gazte euskaldunen ezaugarriak asko aldatu dira: gero eta gehiago dira euskara etxetik kanpo ikasi dutenak –ikastetxean nagusiki–, erdaraz euskaraz baino erraztasun handiagoa dutenak komunikatzeko eta harreman sare erdalduna dutenak.

Horrez gain, kontsumo-ohiturak ere asko aldatu dira, bereziki eremu digitalean sortu diren eta eskura ditugun tresnen garapenaren ondorioz. Horrela, *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera, ia 4 biztanletik 3k Interneteko sare sozialak erabiltzen ditu egunero. 25 urtetik beherako gazteen artean, % 95etik gorakoa da erabilerari hori, eta sare sozialak euskaraz erabiltzen dituztenak % 29,5 dira.

Gertaera horiek guztiak ez dira euskal gizartean bakarrik gertatzen ari; Europako eta, oro har, mendebaldeko gizartearen ezaugarri ere badira. Egoeraren irakurketa egiten denean eta irakurketa horren ondorioz proposatutako neurriak hartzen direnean, testuinguru hori ere kontuan izan behar da ezinbestean. Izan ere, aldaketa horiek guztiek badute eraginik euskararen bilakaeran, eta izaten jarraituko dute datozen hamarkadatan ere. Aldaketon ondorioz, euskal gizartea gero eta anitzagoa da; hizkuntza eta kultura aniztasunean bizi gara, eta askotariko pentsamoldeak zein jokamoldeak zabaltzen ari dira gure artean.

VI. Inkesta Soziolinguistikoa gogoan, gurasoak euskaldunak direnean, familia bidezko euskararen transmisioa % 90ean betetzen da; gurasoetako bat euskalduna denean, gero eta gehiago transmititzen da euskara, erdararekin batera. Horrez gain, irakaskuntza ez unibertsitarioan % 69,4 D ereduan matrikulatuta dago, eta ehuneko gora doa ikasturtez ikasturte.

Eustateko datuetatik eratortzen denez, euskarak 300.000 hitzun baino gehiago irabazi ditu azken hiru hamarkadatan, bereziki belaunaldi gazteenen artean. Horrez gain, euskararen presentzia areagotu egin da duela gutxira arte arrotz zituen hain-

bat erabilera-eremutan. Adibidez, *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera, euskararen erabilerak osasun zein udal zerbitzuetan -eremu formalean- 10 puntutik gorako hazkundera izan du azken 25 urteotan.

Horri lotuta, euskal gizartearen %65 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, *VI. Inkesta Soziolinguistikoan* jasotako datuen arabera. Esaterako, %82,6k uste du ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea, eta %75,2k uste du administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna

Europara begira, eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko, *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* sinatu zuen Espainiak 1992ko azaroaren 5ean, eta berretsi egin zuen 2001eko otsailaren 2an (ikus BOE 2001/09/15). Ondorioz, Gutuna indarrean dago Espainiako lurraldean. Guztira, hogeita hamaika estatuk izenpetu dute orain arte; horietarik hogeita hiruk berretsi ere egin dute.

Hiru urtez behin egiten du hartutako konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa Europako Kontseiluak. Espainiako Estatuari dagokionez, bost ebaluazio txosten egin ditu: 2005ean, 2008an, 2012an, 2016an eta, bosgarrena, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 2019ko abenduaren 11n onartutakoa.

Ebaluazio horretan daude jasota Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Espainiako Estatuari egiten dizkion oharrak eta gomendioak: Adituen Batzordeak egindakoak (hauek Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak bere egin ditu) eta, gainera, lehentasunez hartu beharreko neurriak.

2019ko txostenari dagokionez, EA Eren kasuan, euskal administrazioen esku dauden konpromisoak orokorrean betetzen dira; esparru ahulenetan ere aurrerapenak egin direla nabarmendu behar da. Txostenak, bestalde, Iparraldeko erakundeekin zein Nafarroako Gobernuarekin dagoen elkarlana txalotzen eta azpimarratzen du eta, eredu gisa, elkarlanean sustatutako *Euskaraldia* egitasmoa aipatzen du. Hobe-tzekoak diren puntuetan, bi gomendio zuzen egiten zaizkio euskal administrazioari:

- Ertzaintza: aurreko ebaluazioa egin zenetik, zenbait hobekuntza lortu dira Ertzaintzaren euskararen erabileraren normalizazio prozesuan. Beraz, neurri batean, konpromisoa betetzen dela aitortzen du Adituen Batzordeak.

- Osakidetza: egin diren urratsak aitortzen dira. Adituen Batzordearen arabera, Osakidetza Osasun Sistemaren euskararen erabilera hobetu da, baina oraindik badago hobekuntzarako tartea.

Gogoan izan behar da Ertzaintzak zein Osakidetzak beren plan zehatzak dituztela. Osakidetzak, esaterako, hainbat proiektu estrategiko ditu euskararen erabilera sustatzeko: langile eta zerbitzu elebidunak identifikatzeko sistema du; pazienteen lehenetako hizkuntza erregistratzen hasi da; langileei hizkuntza prestakuntza eskaintzen die; osasun arloko aplikazio garrantzitsuenak euskarara egokitzeko lanean dihardu; hizkuntza normalizazioaren inguruko lankidetzak-hitzarmenak ditu; hizkuntza kudeaketaren etengabeko ebaluazioa egiten du...

Bestalde, Adituen Batzordeak Espainiako agintariak bultzatzen ditu "betetzat" jotzen ez diren Gutunaren arabera konpromiso guztiak betetzera, baita betetzen direnak betetzen jarraitzea ere. Horrela, euskarari buruzko presazko bi gomendio zuzentzen zaizkio Estatuko Gobernuari:

- Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatu beharra, euskararen erabilera bermatzeko alderdietako batek hala eskatzen duenean.
- Euskararen erabilera sustatu beharra Estatuaren administrazioan, EAEn.

Munduko hizkuntzak

Mundu mailan, munduko hizkuntzen bizi-indarra edo "pisua" neurtzen duen Calvet barometroaren 2012ko datuen arabera, euskara 51. postuan dago 500.000 hiztun baino gehiago dituzten munduko 563 hizkuntzen artean. Saillakapen horretan ingelesa, gaztelania, frantsesa edo mandarinerak bezalako hizkuntza indartsuak daude. Hortaz, aipatzekoa da euskara bezalako hizkuntza gutxi bat postu horretan egotea.

Horrenbestez, euskararen normalizazio prozesuan aurrera egin badugu ere, oraindik bada zereginik. Langintza horretan, hizkuntza plangintza eraginkorra ezartzeko, ezinbestekoa da bide-orri argia izatea eta gizarte osoarekin lankidetzan aurrera egitea.

Gizarte-testuinguru espezifikoa

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020

Aurreko legealdiko Agendari egindako jarraipenak erakusten digu euskara normalizatzeko bidean HPSk aurreikusitako jarduera gehienak garatu dituela; hau da, 4 konpromiso nagusi, 14 ekimen eta 67 azpi-ekimen izan dira oinarrian urtero, eta horiek betetzeko jarduera gehienak gauzatu dira. Hona hemen urtez urteko datuak:

Urtea	Jarduerak	Bete bai	Bete ez	Betetze-maila
2017	156	130	26	% 83,3
2018	171	152	19	% 88,8
2019	173	159	14	% 91,9
2020	168	157	11	% 93,4

Ebaluazioa egiteko erabili diren adierazle nagusiak direla eta, *VI. Inkesta Soziolinguistikoa* da iturri behinena. Azkeneko datuak 2016ko inkestakoak dira, eta hurrengo inkesta 2021ean egingo da; ondorioz, ezin ditugu eskuratu aurreko Agendaren ebaluazio osoa egiteko erreferentzia nagusiak. Hala eta guztiz ere, ditugun datuetatik abiatuta, honako zehaztasun hauek eman ditzakegu:

- Aurreko legealdiko *Euskadi 2020 Gobernu Programan* euskararen arloan ezarritako herri-helburua 25 urtetik beherakoen %75 euskal hiztun izatea zen. Agendak, helburu hori bere eginda, 1. helburu estrategikoa –euskal herritarren euskara-gaitasuna ugaritzea– ezarri zuen. Bertan jasotako adierazleak eta iturriak aintzat hartuta, 2016ko datuen arabera, helburu nagusi hori ondo bete da, 25 urtetik beherakoen % 81,2 baitira euskara-gaitasuna dutenak. Horri lotuta, 2016an 895.942 euskaldun izatera igaro gara, 2020rako aurreikusitakoaren gainera.
- 3. helburu estrategikoa –euskal herritarren erabilera handitzea– lortu den jakiteko, eskolako erabilera erakusten duten datuak baino ez ditugu oraingoz. 2017ko datuen arabera, eskolako erabilera orokorra % 58,5 da LMH4n eta % 40,7 DBH2n, eta emaitza horiek aurreikusitakoa betetzen dute.
- 4. helburu estrategikoa –erakundeetan euskararen erabilera handitzea– lortzeko oztopo izan da batik bat COVID-19ak eragindako pandemia, lanean

zein lan egiteko moduan eragin duelako. Horrela, datu eguneratuak ditugun arlo honetako adierazle bakarra kontuan hartuta, 2020an 17 erakundek lortu dute BIKAIN ziurtagiria, aurreikusitakoaren azpitik. Hala ere, ikusi da ziurtagiria lortzen saiatzen direnek erabilera adierazleak handitzen dituztela euskararen alde.

- 5. helburu estrategikoa –herritarren hizkuntza eskubideen babesa bermatzea– ondo bete da, konponbide egokia izan duten Elebideko intzidentziak %94,7 izan baitira, aurreikusitakoa baino gehiago. Nabarmendu behar da Elebidek Arartekoarekin zein Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin lankidetzan diharduela herritarren hizkuntza eskubideak babesteko ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko.
- 6. helburu estrategikoa –ezagutzaren garapenean eta berrikuntzan sakontzea– erdiesteko bidean, 2020an Euskalterm Terminologia Banku Publikoak 156.381 kontsulta izan ditu hilero eta 603 euskarazko doktorego tesi sareratu dira, aurreikusitakoaren gainetik; alabaina, Terminologia Batzorde-atal Bezeziak 71 hiztegi terminologiko onartu ditu, aurreikusitakoaren azpitik. Hala ere, azpimarratu behar da hizkuntza teknologia arloan aurrerapauso handiak egin direla (adibidez, ITZULI eta ITZULI+ tresnak garatu dira) eta hainbat ikerketa esanguratsu gauzatzeko aukera egon dela (adibidez, gazteak eta beren euskara erabilera aztertu dira).
- 8. helburu estrategikoa –euskal eremuan eragileen arteko lankidetzaren ugartzea– arrakastaz bete da. Euskal eremuan erakunde publiko eta pribatuekin 30 lankidetzaren egitasmo baino gehiago sustatu dira proiektu estrategikoei lotuta. Hona hemen adibide batzuk: *Hiruko Ituna* hitzartu da euskararen eremuko erakundearen artean (Eusko Jaurlaritzako HPS, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentua eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa), Euskal Hedabideen Mahaia sortu da, eta INDEUS plataforma gauzatu da Euskal Energiaren Erakundearen, SPRIren eta HPSren artean. Guztia aurreikusitakoaren gainetik.
- 9. helburu estrategikoa –nazioartean eragileen arteko lankidetzaren ugartzea– lortzea zaila izan da, pandemiaren eraginez nagusiki. Nazioarteko erakundeekin ezin izan da hitzarmenik sinatu, bestela aurreikusten bazen ere.
- 2. helburu estrategikoa –euskal herritarren euskararen transmisioaren ugartzea– eta 7. helburu estrategikoa –gizarte aktibazioa indartzea– baloratzeko

adierazle nagusietan datu eguneratuak falta dira. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi *Euskaraldia* egitasmoak izan duen arrakasta (ikus 2. atal honetako "Gizarte-pertzepzioa eta herritarren parte-hartzea" azpiatala).

Orokorrean begiratuta, Agendako helburu estrategiko nagusia –Gobernu Programako herri-helburua dena– bete da, eta gainerako helburu estrategikoei dagokienez ere, gehienetan aurrera egin dela erakusten dute adierazleek. Hala ere, euskararen normalizazioa eta hizkuntza bizikidetzara eramateko oraindik bada zereginik, eta asmo horri begira HPSk lanean jarraituko du hurrengo Agendaren bidetik.

Gainera, COVID-19ak, osasun ondorioak izateaz gain, kalte nabarmenak eragin dizkie euskarari, norbanakoei eta euskal gizarte-eragileei: euskaraz komunikatzeko aukerak murriztu zaizkie hitzun askori, euskarazko produktuak sortu eta gizarteratzeko arazoak izan dituzte beste batzuek... Kalte horiek zehatz ezagutzeko, 3 ikerketa nagusi egin dira:

- COVID-19ak euskaltegien jardueran izan duen eragina neurtzeko ikerketa egin du HABEK 2018-2019 ikasturtetik 2020-2021 ikasturtera bitarteko datuekin. Eraitzen arabera, COVID-19ak eragin handia izan du helduen euskal-duntzean. Horrela, 2018-2019 eta 2019-2020 artean (apirila-ekaina bitartean eta udakoetan aurrez aurreko zein autoikaskuntzako ikasleak kontuan hartuta): batetik, ikasle kopurua nabarmen jaitsi da (%27,3↓); bestetik, aurrez aurreko ikastaroetako ikasle kopuruak behera egin du (%34,3↓) eta autoikaskuntza aukeratu duten ikasle kopuruak nabarmen gora (%77,3↑). 2019-2020 eta 2020-2021 artean ikasle jaitsiera apalagoa izan da (%12,3↓). HABEK hartutako neurriei esker, euskaltegiek dirulaguntzak jasotzen jarraitu dute, baina ikasle jaitsierak matrikula bidezko diru sarrerak jaitea eragin die. Gainera, euskaltegien baldintzak zaildu egin dira orokorrean: ikasgeletan ikasleak sartzeko arazoak, egokitzapen didaktikoak eta teknologikoak egiteko zailtasunak...
- COVID-19ak euskalgintzan izan duen eragina neurtzeko azterketa egin du HPSk. Eraitzen arabera, euskalgintzako sektorea osatzen duten enpresa eta erakunde gehienek COVID-19aren ondorioak jasan dituzte beren jardueretan: aurretik antolatutako ekintzak bertan behera utzi behar izatea (%46,6), jarduerak birmoldatu behar izatea (%45,8), ekintzak atzeratzea (%41,5) eta

jarduerak eten behar izatea (%30,5). Finantza-egoeran ere eragin handia izan du: ziurgabetasun egoera aipatu da (%36,4), eta epe laburrean ziurgabetasun hori areagotu egingo dela uste da (%49,2). Krisiari aurre egiteko neurri nagusia telelana izan da; izan ere, sektoreko erakundeen %50ak baino gehiagok ezarri du, eta azpi-sektore batzuetan %80ak baino gehiagok. Euskalgintzari lotutako enpleguan ere eragin nabarmena izan du: orotara, gizonen artean (-%18,5) zein emakumeen artean (-%17,4) murriztu da enplegua, baina euskalgintza sektore feminizatua dela kontuan hartuta (%63,2 emakumezkoak dira eta %36,8 gizonezkoak), kopuru absolutuetan, emakumeek izan dute enplegu murrizketa handiena.

- COVID-19ak euskarazko hedabideetan izan duen eragina neurtzeko ere azterketa egin du HPSk. 2020an 2019an baino produkzio apalagoa izan dute tokiko paperezko hedabideek, egunkari orokorrek eta irratiek; handiagoa, ostera, aldizkari orokor eta espezializatuek, telebistek eta, batik bat, Interneteko agerkariak. Konfinamendu garaian, webguneen audientziek igotzea handia izan dute (%47), eta orokorra (tokikoetan eta nazionaletan, soilik sarekoak diren hedabideetan eta beste euskarri batekin batera sarekoa dutenetan). Irabazi horren zati esanguratsu bati eutsi egin zaio itxialdiaren ondoren. Ezohiko egoera honetan jardunari eusteko bidea telelana izan da (itxialdian, langileen ia %90; ondoren, 3tik 2). Gastuei dagokionez, 2020an ez da egiturazko aldaketarik izan. Enpleguari dagokionez, konfinamendu garaian lanpostu batzuk galdu ziren, tokiko hedabideetan batez ere, baina berreskuratu da osasun larrialdiaren aurreko kopurua; areago, 2021ean lanpostuak gehitzea aurreikusi dute komunikabideek, betiere diru sarreretan izan daitezkeen gorabeheren arabera. COVID-19ak eraginda hedabideetako langileen artean genero arrakala handitu ote den galdetuta, 5 emakumetik 2k uste dute arrakala areagotu egin dela (%40), eta gizonen artean ehuneko horren erdia da hori uste duena (%21).

Horrenbestez, pandemia egoerak eragindako kalteak leuntzeko ekimenak ere sustatu beharko dira legegintzaldi honetan.

Baliabideak

HPSk bi urtean behin egiten du *Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika* azterketa. Horren bidez neurtzen da EAEko herri administrazioek euskara sustatzeko zenbat diru jartzen duten eta diru kopuru horrek zer bilakaera duen. Azken azterketa 2018ko datuen arabera egin da.

EAEko herri administrazioen 2018ko euskara aurrekontu kontsolidatua 158,4 milioi eurokoa da. Hori kalkulatzeko, azterlanean sartutako administrazio guztien euskara aurrekontua batu da, eta kendu egin zaizkio erakundeen arteko barne transferentziak. Hortaz, aurrekontu kontsolidatuak adierazten du benetan zenbat diru bideratu den hizkuntza politikara. Aurrekontu likidatuaren baturak, berriz, adierazten du zenbat diru kudeatu den hizkuntza politikan, erakundeen arteko transferentziak barne direla.

Eusko Jaurlaritzak 94,3 milioi euroko aurrekontu kontsolidatua du (EAEko aurrekontu osoaren %59,6). Hiru foru aldundien artean 17,7 milioi euro jarri dituzte (%11,2). 5.000 biztanletik gorako udalek 46,3 milioi euro jarri dituzte (%29,2); horietatik 36,4 milioi euro dagozkie hiriburu ez diren 68 udalei (%23,0) eta 9,9 milioi euro hiriburuei (%6,2).

Euskara aurrekontu likidatuak jaitziera nabarmena izan zuen 2008tik 2012ra, eta goraka ari da ordutik hona. 2018an igoera sendoa izan da, 2014an eta 2016an baino nabarmenagoa: 2012an baino 15 milioi euro gehiago.

Euskarak pisua galdu du administrazio publikoetako aurrekontuetan, aurrekontu orokorra baino gutxiago igo baita euskararen esparrukoa: 2018an, adibidez, 2016an baino %7,7 handiagoa da EAEko erakundeen aurrekontu likidatu osoa, eta euskararen arlokoa, %6,9 handiagoa. Izatez, 2014ko salbuespena kenduta, hau da joera: aurrekontua igo den garaietan, orokorra baino gutxiago hazi da euskararen arlokoa; eta aurrekontua jaitsi denean, orokorrak baino jaitziera handiagoa izan du euskarari dagokionak.

Hala ere, HPSri dagokionez, esan behar da bestelakoa izan dela azken urteotako joera: Eusko Jaurlaritzako aurrekontu orokorren ehunekoarekin erkatuta, HPSren aurrekontuen ehunekoa igo egin da.

Ekitaldia	Administrazio Orokorra	Δ	Hizkuntza Politika	Δ
2018	11.486,41		54,66	
2019	11.784,11	% 2,59	56,74	% 3,80
2020	11.774,00	- % 0,09	60,70	% 6,99
2121	12.442,37	% 5,68	64,93	% 6,97
(Δ metatua)		% 8,32		% 18,79

Azterketan jasotakoaren arabera, jarduera eremuen araberako euskara aurrekontuak horrela banatu dira nagusiki:

- Euskalduntze-alfabetatzea: 48,4 milioi euro (% 30,4). Horietatik 36 milioi euro Eusko Jaurlaritzak jarri ditu.
- Irakaskuntza: 28,1 milioi euro (%17,5). Horietatik 24,4 milioi euro Eusko Jaurlaritzak jarri ditu.
- Administrazioa: 16,8 milioi euro (%10,5). Eusko Jaurlaritzak % 54,5 jarri du, udalek eta hiriburuek % 29,6 eta foru aldundiek % 15,9.
- Hedabideak: 10,4 milioi euro. Eusko Jaurlaritzak % 51,9 jarri du, foru aldundiek % 25 eta udalek eta hiriburuek % 23,1.
- Aisia eta kirola: 7,8 milioi euro (% 4,9). Hiriburuek eta udalek % 95,1 jarri dute (Eusko Jaurlaritzatik eta foru aldundietatik jaso dute zenbateko horren zati bat).

Euskararen arloko egiturazko gastuei dagokienez –giza baliabideak eta baliabide teknikoak–, aurrekontu likidatuaren %12,0 bideratu da horietara, 19,3 milioi euro: 8,3 milioi euro (% 43,1) udalei eta hiriburuei dagozkie, 7,4 milioi euro (% 38,5) Eusko Jaurlaritzari eta 3,6 milioi euro (% 18,4) foru aldundiei.

Herri administrazioen dirulaguntzei dagokienez, EAeko erakundeek 81,5 milioi euro bideratu dituzte euskararen esparruko dirulaguntzetara 2018an, euskara aurrekontuaren erdia pasatxo (% 50,8). Biztanle bakoitzeko 37,24 euro jarri dituzte dirulaguntzetan. Zenbatekoaren % 64,4 Eusko Jaurlaritzak jarri du, udalek % 19,4, foru aldundiek % 13,3 eta hiriburuek % 2,9.

- Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetarako aurrekontu likidatua 52,4 milioi eurokoa izan da.

- Foru aldundiek 10,8 milioi euro kudeatu dituzte dirulaguntzetan: Bizkaiko Foru Aldundiak 5,3 milioi euro, Gipuzkoako Foru Aldundiak 4,6 milioi euro eta Arabako Foru Aldundiak 0,9 milioi euro.
- Udalen kasuan, Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako herriek 15,99 euro eman dituzte laguntzatan biztanleko, Bizkaikoek 11,72 euro eta Arabakoek 6,77 euro.

2017-2020 legegintzaldian, nagusiki, dirulaguntza deialdi hauek bideratu ditu HPSk:

- Euskalgintza deialdia: gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.
- Hedabideak deialdia: euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.
- Euskara gaztelaniazko hedabideetan deialdia: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak emateko deialdia.
- Euskara ingurune digitalean deialdia: ingurune digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.
- Lanhitz deialdia: entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak emateko deialdia.
- Berdintzen deialdia (2019): hizkuntza eta genero berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko beketarako deialdia.
- ESEP deialdia (2018 arte): EAEko toki-erakundeetan *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)* garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.

Gainera, HABEk dirulaguntza deialdi hauek kudeatu ditu:

- Udal euskaltegien deialdia: udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei dirulaguntzak emateko deialdia.
- Euskaltegi pribatuen deialdia: euskaltegi pribatu eta euskararen autoikasuntzarako zentro homologatuei, euskara ikastaroengatik dirulaguntzak emateko deialdia.
- Ikasleen deialdia: HABEren euskara mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia.
- Didaktika bekak: helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko beketarako deialdia.

Dirulaguntza deialdiez gain, badira azpimarratzeko moduko bestelako laguntza zuzen zein izendun batzuk:

- Euskaren erabilera areagotzeko: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, Euskaltzaleen Topagunea, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa, Game Erauntsia Elkarte...
- Erabilera planak gauzatzen laguntzeko: Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL), Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), Errota Fundazioa, Euskalit Fundazio...
- Euskarazko edukiak garatzeko: Euskal Wikilarien Kultura Elkarte, Euskaltzaindia, Labayru Fundazio...
- Euskararen inguruko ikerketak gauzatzeko: Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultatea, EHUKo Euskara Institutua, EHUKo Unesco Katedra, Soziolinguistika Klusterra...

Azkenik, giza baliabideei dagokienez, 2018ko datuen arabera, EAeko herri administrazioetako euskara zerbitzuetan eta arloetan 740 zuzeneko langile daude; urte eta lanaldi osora kalkulatu da kopuru hori. Langile kopurua igo egin da: 2012an 716 ziren, 2014an 727 eta 2016an 731. Erakunde esparruaren arabera, Eusko Jaurlaritzari 459 langile dagozkio (%62); 5.000 biztanlez gorako udalek 172 dituzte; foru aldundiek 60 eta hiriburu-udalek 49.

Lurralde historiko batetik bestera alde handia dago biztanleko ratioa kalkulatu gero. Gipuzkoan, euskararen arloko behargin bat dago 5.183 biztanleko; Araban, 9.370 biztanleko bat; eta Bizkaian, 10.611 biztanleko bat.

Euskararen arloko lanpostuetan emakumeak dira gehienak, bostetik hiru (%60,9). Hala ere, goi mailako lan kategorietan -A eta B multzoetan-, proportzionalki gizon-gehiago dago.

Gizarte-pertzepzioa eta herritarren parte-hartzea

Gizarte-pertzepzioa ezagutzeko eta herritarren zein adituen parte-hartzea bideratzeko gune nagusia Euskararen Aholku Batzordea (EAB) da; Euskararen Erabilpena

Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legean aurreikusitako harreman-organoa da, eta EABren Batzorde Osoaren zein batzorde-atal berezien bidez gizarte-eragileen partaidetza bideratzen da.

EABren osaerari dagokionez, administrazioetako kideak eta administrazioz kanpoko adituak daude. 2017-2020 legegintzaldian, Lehendakariatz gain, Eusko Jaurlaritzako 7 kide, foru aldundietako 3 kide eta Legebiltzarreko 5 kide egon dira, 40 aditu ingururekin batera.¹

EABren egitekoak dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, EAEko hizkuntza normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea, euskararen erabilera-ri buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Eusko Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei, hizkuntzari loturiko gaietan eskumena duten herri-aginteen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea, eta ESEPen garapena ebaluatzea.

2017-2020 legegintzaldiko lehen bileran, 2017ko urriaren 3an, EABren Batzorde Osoak batzorde-atal berezi hauek sortzea erabaki zuen: Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia, Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezia eta Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Berezia. Hauekin batera, dekretu bidez onartutako batzorde iraunkor hauek ere lanean aritu dira: Terminologia Batzorde-atal Berezia eta Toponimia Batzorde-atal Berezia.

EABk egindako lana lagungarria da hizkuntza politikaren estrategiak bideratzen laguntzeko. Aurreko legealdian, adibidez, aipagarriak dira Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziak 2018an egindako "Gazteak eta euskara. Gauzatu-tako praktiken gaineko gogoeta" jardunaldiak eta horien emaitzak; Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Bereziaren eskutik *Euskaraldia* egitasmoari egindako jarraipena, eta Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak 2016an argitaratutako *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuan emandako gomendioei egindako jarraipena.

1. Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, Euskararen Aholku Batzordea arautzeko dekretu berria onartu zuen 2020ko uztailaren 28an, organoaren osaera berrituz eta funtzionamendu arauak egokituz. Dekretu berriaren bidez, kide kopurua murriztu zen, berdintasun ikuspegia txertatu zen osaeran eta funtzionamendu arauak eguneratu ziren.

Horrez gain, gizarte-pertzepzioa ezagutzeko ikerketak egin izan dira eta egiten dira. Hona hemen adibide pare bat:

- Deustuko Unibertsitateak “gazteak eta euskararen aldeko aktibazio ibilbi-deak” ikerketa-proiektua du 3 urterako. Horren bidez, Bilbo inguruko 15 bat gazteren euskararen aldeko mudak ikertu nahi dira: zehazki, hizkuntza praktikak eta ohiturak aldatzeko bidearen zer-nolakoa eta prozesuaren alderdi emozionala ezagutu nahi dira eta, aldi berean, gazte horien artean euskararen aldeko aktibazio prozesuak sustatu.
- Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak “bertako ikasleen kulturarekiko eta hizkuntzarekiko pertzepzioak eta identitatearen eraikuntza” aztertzeko 4 urteko proiektua du. Besteak beste, i(ra)kas prozesuetan ikasleen euskararekiko jarrera eta motibazioak aztertu eta hauetan eragitea da helburua.

Herritarren parte-hartzeari lotuta, *Euskaraldia* egitasmoa nabarmendu behar dugu, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak bultzatuta, mota guztietako erakunde publiko eta gizarte-eragileen laguntzarekin Euskal Herri osoan zabaldu dena.

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

2018an lehenengo edizioa egin zen. Horretan 164.000 *Ahobizik* eta 61.200 *Belarriprestek* parte hartu zuten EAEn, Nafarroan zein Ipar Euskal Herrian; hau da, 16 urtetik gorako 225.000 herritarrek (% 62,16 emakumezkoak, % 36,98 gizonezkoak eta % 0,86 ez binarioak), euskal herritarren % 8,5ak eta euskal hiztunen % 14,7ak.

2020an, pandemia garaian, bigarren edizioa egin da. Partaidetza hain jendetsua izan ez bada ere, arrakastatsua izan dela aipatu behar da. Honetan 138.430 *Ahobizi* eta 41.350 *Belarriprest* izan dira; guztira, 179.780 herritar (% 62,37 emakumezkoak, % 36,67 gizonezkoak eta % 0,96 ez binarioak).

Euskaraldia egitasmoaren lehenengo edizioari buruz herri-batzordeei egindako galdetegiak irakaspen edo irakurketa hauek ekarri ditu (ikus *Euskaraldia I. Emai-*

tzen azterketa (https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2019/09/Txostena_EUS.pdf) eta *Euskaraldia zenbakitan* txostena (https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2019/01/EUSKARALDIA_ZENBAKITAN.pdf):

- Arau sozialak aldatzen ari gara: "nahikoa da ondokoak ulertzea, nik euskaraz egiteko", "ondo dago lehen hitzak euskaraz egitea...", baina asko dugu egiteko."
- Parte-hartze handiak zilegitasun soziala eman dio ariketari. 405 udalerrri, 198 entitate sustatzaile, 225.000 parte-hartzaile.
- Elkarlanean bide berriak ireki daitezke, funtzioak banatuta. Muga geografikoak eta administratiboak gainditu ditugu, eta malgutasunez jokatu da.

Norantza doa euskara?

Gizarte-testuinguru orokorra eta espezifikoa aintzat hartuta, galdera bati erantzuten saiatuko gara: norantza doa euskara?

Unesco Etxearen arabera, munduan 6.000 hizkuntza inguru hitz egiten dira, eta horietatik ia erdiak desagertzeko arriskuan daude. Globalizazioak eta munduko hizkuntza nagusien erabilera homogeneizatzeak eragin du, bereziki, hizkuntza txikien bizi-ingarrean. Aldeko lanik egin ezean, munduko hizkuntza gutxituek desagertzera egingo dute.

Amorrortu eta besteren *Munduko hizkuntzei buruzko txostenak* argi dioten moduan, "mundu txukunagoa, orekatuagoa eta aurreratuagoa eraikitzeke saioaren barruan dago hizkuntz ondarea babesteko lana. Oso lotura argiak daude hizkuntz politiken, garapen ekonomiko, kultural eta sozialaren, sistema demokratikoak hobetzeko saioen, egonkortasunaren eta bakearen artean. (...) Aniztasuna errespetatzen duten eta eremu urriko hizkuntzak bultzatzen dituzten hizkuntz politikek bakea sustatzen dute, eta ideia horrek bultzatzen gaitu gure lanean. Norberaren identitate linguistikoa aldarrikatzeko eskubideak izanez eta beste hizkuntza komunitateekin elkar ulertzeko harremanak eta errespetuzko harremanak sustatuz eraikitzen da bakea" (2004: 9). HPSk bat egiten du ideia horrekin.

Europara etorrira, *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* dugu eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko tresna nagusi garrantzitsua;

hala ere, Gutunak, berez, ez du bermatzen hizkuntzak babestuko direnik; sinatzeaz gain, estatu bakoitzak berretsi behar du Gutuna eta araudi propioaren bidez garatu.

Euskara hizkuntza gutxitu horietako bat da: EAEn ofiziala izan eta aurrerapauso handiak eginagatik ere, egoera gutxituan dagoen jatorrizko hizkuntza. Ingurune digitalean, lan-esparru pribatuan eta aisialdian toki txikia du, oraindik. Hizkuntza aniztasunaren, jasangarritasunaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik, hizkuntza gutxituen berreskuratze prozesuak ezinbestekoak dira.

Horregatik, besteak beste, arreta berezia merezi du euskararen biziberritze prozesuan hizkuntza politika eraginkorra garatzeak. Euskararen Legearen aurretiko eta ondorengo bideari esker egin da aurrera euskararen normalizazio prozesuan, eta lagungarri izan dira honako ekinbide sendo hauek:

- Legezko babesa eta administrazioaren hautu linguistikoa.
- Administrazioaren inbertsio ekonomikoak: giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.
- Euskararen corpora: euskara batua.
- Hezkuntza sistema: D eredua.
- Helduen alfabetatze-euskalduntzea: eskalategiak.
- Euskarazko hedabideak.
- Entitate pribatuen hautu linguistikoa, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskaraz lan egiteko aukerak zabaltzeko.
- Gizartearen eta erakundearen arteko lankidetzak.
- Gizartearen inplikazio baikorra eta kooperatiboa.

Euskararen ezagutzan gorantz doan gizartea gara. Gero eta gazte gehiagok daki euskara; beraz, euskara gero eta gehiago erabiltzeko aukerak sortzen ari gara. Ezagutzaren unibertsalizatorantzko bidea egiten ari den gizartea gara. Administrazioaren, gizarte-eragileen eta entitate pribatuen artean bada adostasuna hizkuntza gutxituen biziberritzearen parte izateko. Auzolana abiapuntu dela, elkarrekin adostu eta landutako bidea egiten ari gara.

Haatik, euskara egoera zaugarrian dago oraindik eta baditu erronkak. Gure gizartean jaiotze-tasak beheranzko joera du; immigrazioa handitzen ari da, beraz, hizkuntza eta kultura aniztasunean bizitzea dagokigu, bertako hizkuntza babestuz eta zabalduz, gainerako guztiekin harremanetan; globalizazioaren indarrak hiz-

kuntza hegemonikoak jartzen ditu erdigunean; ingurune digitalean euskara lekua egiten ari bada ere, ezinbesteko du ikusgarritasuna irabaztea, eta hizkuntza teknologiak beharrezkoak ditugu XXI. mendeko gizartearen ezaugarrietara egokitzeko; lan mundu publikoan zein pribatuan hizkuntzak kudeatzea dagokigu euskararen presentzia ere bermatuz; eremu ez-formalean (aisialdia, kirola, kultura...) euskarak erabilera-aukerak irabazi behar ditu.

Euskararen aurrerabidea erronkaz beteta dago. Gizarte gero eta konplexuago batean, hizkuntza gutxitu batek lekua izatea eta leku horretatik gizarte berdinzale bat eraikitzea dugu xede; konplexutasun horren barruan dauden pertsona guztiak aintzat hartuz, auzolanean, adostasunean eta baikortasunez.

3.

HELBURU ETA ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Gobernu Programan euskararen arloan dagoen herri-helburua da **euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea**. *Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024* honetan berretsi egin dira Gobernu Programan ezarritako konpromisoak eta ekimenak, eta ekintzak zehaztu dira. Horrez gain, euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan aurrera egiten jarraitzea da asmoa.

Egiteko horiek gauzatzeko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak honako **helburu estrategiko hauek** ditu:

- 1.** Herritarren euskararen ezagutza handitzen jarraitzea.
 - Helduen ikaskuntza-egitasmoa sendotzea.
- 2.** Herritarren euskararen erabilera handitzen jarraitzea.
 - Euskararen transmisioa bermatzea.
 - Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera handitzea.
 - Ingurune digitalean euskararen erabilera handitzea.
 - Hedabideetan euskararen erabilera handitzea.
 - EAEko sektore publikoan euskararen erabilera handitzea.
 - Eremu sozioekonomiko publikoan zein pribatuan euskararen erabilera handitzea.
- 3.** Herritarren hizkuntza eskubideen bermean aurrera egitea.
 - Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.

4. Euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzaz sendotzen jarraitzea.
 - Hizkuntza politika garatzeko adostasunak lantzea.
 - Erakundeen arteko lankidetzaz indartzea.

Euskararen ezagutza eta erabilera etengabe sustatzea nahitaezkoa da kalitatezko bizikidetzan aurrera egiteko eta, horrekin batera, euskal herritarren hizkuntza eskubideak zaintzeko. Zeregin horretan ezinbestekoa da erakunde guztien arteko lankidetzaz indartzea, baita euskalgintzarekin, entitate pribatuekin nahiz norbanakoekin ere.

Gobernu Programan zehaztutako konpromisoak eta Agenda honetan jasotako helburu estrategikoak lotuta daude. Horrela, lehenengo konpromisoak bat egiten du 1. eta 2. helburuekin, bigarren konpromisoa eta 3. helburua bat datoz, eta hirugarren konpromisoak 4. helburu estrategikoa hartzen du barruan.

Helburu estrategikoen jarraipena egiteko, helburu bakoitzak bere adierazlea izango du (ikus 8. atala).

Euskararen zeharkakotasuna gogoan, zeharkako politika bideratzen dugunez, zeharkako politiketan sakontzea eta lankidetzaz jarraitzea egokituko zaigu Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin eta Eusko Jaurlaritzakoak ez diren erakunde publikoekin eta pribatuekin zein gizarte-eragileekin. Horrela, gainerako politikekiko harremanean pisu handikoak izango dira **honako ardatz estrategiko hauek**:

● Gizarte berdintasuna

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak, 2000-2015 garairako ezarritako milurteko garapen helburuei helduta, bultzada berri bat eman dio garapen jasangarriaren aldeko 17 helburuak lortzeko ekimenari. Helburu horiek berebiziko garrantzia duten 5 oinarritzako elementu –pertsonak, planeta, bakea, oparotasuna eta lankidetzaz biltzen dituzte, misio argi bat bete behar dute eta “inor atzean ez uztea” bermatu behar dute.

Euskararen normalizazio prozesuan, pertsonak, oparotasunak eta lankidetzaz hartzen dute lekua, eta leku hori betetzen du “inor atzean ez uztea” ardatzak. Gizarte

berdintasunari (berdintasun linguistikoa, berdintasun sozioekonomikoa, kulturartekotasuna eta integrazio soziala) ekarpena egin nahi zaio hizkuntza normalizazioa misiotzat duen hizkuntza politikatik ere.

Hala, hizkuntza gutxitu baten berreskuratze prozesuan inor atzean ez gelditzeak esan nahi du gaur egun oraindik agerian dauden arrakala soziolinguistikoak ixtea, betiere gizarte adostasuna kontuan hartuz. Erabileran eragiteko eta gizarte berdintasuna sustatzeko ezinbestekoa izango da arau sozialen irakurketa zehatza egitea, eta jasotako ezagutzatik aktibatzea erabileran eragiteko gakoak.

Euskara ikasi eta erabiltzeko aukera berdintasunean oinarritzen diren politikak garatzea esan nahi du horrek, hiztuna eta hiztun multzoak kontuan hartuta. Haurtzaroen nahiz gaztaroan, euskara ikasteko hizkuntza errefortzu edo laguntzak izatea; heldu aroan, berriz, helduen euskalduntze sistema egonkor eta emankorra izatea, aukera aniztasunean oinarritzen dena. Prozesu osoa egiteko aukeraz gain, bestelako aukera espezifikagoak ere eskaini ahalko dituen sistema ofiziala izatea (euskara ulertzeko gaitasuna, lan jakin batean euskara erabiltzeko gaitasuna, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan euskara erabiltzeko tresnak...).

Jatorrizko biztanle nahiz migratzaileen hizkuntza jabekuntzan laguntzea eta integrazioarako aukerak eskaintzea esan nahi du horrek guztiak. Pertsonen arteko harremanetan sakontzea, kulturartekotasuna eta elkarbizitza ardatz dituen politiketan sakontzea; eta lan munduan, euskarari esker, lan-baldintza ekonomikoak hobetu eta gizartearen integrazteko aukera izatea ere bai.

Euskara oinarri duen zeinu hizkuntza ikasi eta erabiltzeko aukerak erraztea ere bada inor atzean ez uztea, baita zeinu hizkuntza baliatuta bizi eta lan egiteko aukerak ugaritzea ere. Gor, itsu nahiz bestelako ezintasuna duten herritarrak kontuan hartzen dituen hizkuntza politikak osatzea, hain zuzen.

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei gizarte justu eta demokratikoa eskaintzea ere bada hizkuntza politikaren egitekoa. Horrek esan nahi du herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko arauetan sakontzen jarraitzea, herritarrei eskubideak aitortu eta erakunde publikoei zein pribatuei betebeharrak ematea. Zera da, azken finean: adostasun sozioekonomikoak lortzea hizkuntza eskubideen bermean aurrera egin dadin.

Euskarak bidea ematen du arlo sozialean, ekonomikoan eta gizatiarrean gizarteratzeko, eta eskaintzen du gizartearen integrazteko lan aukerak nahiz aukera ekonomi-

koak ugaritzeko bidea, hala nola, bizikidetzaren aldeko portaera sozialak, ezagutza nahiz praktikak garatzeko aukera.

Ardatz honen inguruan ezarri dira hizkuntza politikaren helburu estrategikoak: be-reziki hizkuntzaren ezagutza, erabilera eta herritarren hizkuntza eskubideen mese-detan, batetik; eta ahaztu gabe, bestetik, gizarte integrazioarako tresna eraginkorra dela, arrakala soziolinguistikoa ixteko tresna baliagarria.

● Genero berdintasuna

Agenda honetan jasotako ekintzak gauzatzerakoan, gogoan izan behar da emaku-meen eta gizonen berdintasunerako politikak esparru guztietan sustatu beharreko zeharkako politikak direla.

Genero-ikuspegia txertatzea, nazioartean eta Europan gomendatzen den lan-estra-tegietako bat izateaz gain, euskal herri-aginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duen printzipio orokorretako bat ere bada, Emakumeen eta Gizonen Berdintasune-rako 4/2005 Legearen 3.4 artikuluaen arabera: euskal herri-aginteeek genero-ikus-pegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen ber-dintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2018an onartu zuen *Emakumeen eta Gizo-nen Berdintasunerako Plana*, eta bertan biltzen dira Sailak legegintzaldi honetan berdintasunaren alorrean sustatuko dituen politiken gida-lerroak. Gida-lerro horiek *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana* eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dute oinarri. HPSri dagokionez, Saileko planak hainbat helburu ezartzen ditu, eta honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- 7. helburua: azterketa soziolinguistikoan genero-ikuspegia txertatu eta gene-roaren eta hizkuntzaren inguruko ikerketak sustatu.
- 8. helburua: berdintasun politiken (feminismoaren) eta hizkuntza politiken (euskalgintzaren) ezagutza eta praktikak uztartzeko lagungarri izango den marko teorikoa, diskurtsoa, eztabaida guneak eta ezagutza eraiki.
- 9. helburua: berdintasunaren aldeko hizkera gorpuztu eta horretarako ba-liabideak eskaini.

Hizkuntza politiken (euskalgintzaren) eta berdintasun politiken (feminismoaren) ezagutza eta praktikak uztartzeko lagungarri izango den marko teorikoa, diskurtsoa, eztabaida guneak eta ezagupena eraikiko ditu HPSk, bizitzaren arlo guztietan gizon-emakumeek aukera berberak izan ditzaten bermatzeko eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko. Gainera, euskalgintzan diharduten profesional gehienak emakumeak direla kontuan harturik, beren lan-baldintzak hobetu eta lan-esparrua duintzeko bideak aztertuko ditu.

Horrekin batera, HABEk ere sortu du Berdintasun Unitaterako berdintasun teknikari lanpostu bat, eragina izango duena bai HABE erakundeetan bertan bai babestutako euskaltegietan. Gainera, HABEk emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plana onartu du, eta urtero plan hori gauzatzeko ekintza plana onartu eta kudeatzen du.

Gainera, Euskararen Aholku Batzordearen barruan Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia osatu da, euskararen eta generoaren arteko harremanaz gogoe-ta egin eta elkar sendotzeko aukeretan sakontzeko; bi esparruak ukitzen dituen jakintza sustatu, antolatu eta garatzeko; eta hizkuntza politikan genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak egiteko.

Hizkuntzaren eta generoaren arteko harremanaz ari garenean, generoak errealitate soziolinguistikoan duen eraginaren gainean ari gara bereziki. Hau da: generoa aipagarria da hizkuntza errealitatea aztertzean?; badago desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean hizkuntzaren ezagutzari, erabilerari eta transmisioari dagokienez?; zer esanahi du batzuentzat eta besteentzat hizkuntzak?; hizkuntza identitateen eraikuntzan zer eginkizun du generoak?; genero identitateen eraikuntzan, zer eginkizun du hizkuntzak? Emakumeen ekarpena euskara biziberritzeko prozesuan: zein izan da emakumeen egitekoa euskararen biziberritzean?; zein leku dute emakumeek euskalgintzan gaur egun?; badago antzekotasunik emakumeek eta euskarak gizartean (izan) duten lekuen artean? Hizkuntza politika / berdintasun politika elkarguneak eta euskalgintza / feminismoa elkarguneak: zertan egiten dute bat?; zer ekarpen egin diezaioke batak besteari?...

Hizkuntzak eta generoak duten loturaz hainbat gogoeta eta ikerketa egin dira azken urteotan, baina orain arteko ekarpenak nahikoa sakabanatuta daude eta garatzeko dago eremua. Agenda honen bidez, aurrera egin nahi dugu bide horretan ere.

● Ingurune digitala

Konektagarritasunaren aroan bete-betean murgilduta gauden honetan, esan daiteke oso aldakorra den mundu batean bizi garela. Gure gizartea aro digitalean sartu zenetik, makina bat aldaketa bizi izan ditugu, askotan konturatu ere egin gabe.

Gizartea aldatu egin da eta, horrekin batera, pertsonen arteko komunikazio moduak ez ezik, baita komunikatzeko inguruneak ere. 2020an bizi izan dugun eta 2021ean bizitzen ari garen egoerak goitik behera astindu ditu gure giza portaera eta balioetako batzuk, eta ingurune digitalaren garrantziaz kontziente izaten lagundu digu, halaberharrez izan bada ere.

Gaur egun, hizkuntza bat ezin bada normaltasunez egunero erabili ingurune digitalean, aukera asko daude hizkuntza hori galtzeko. Hizkuntza baten bizi-indar digitalak emango digu hizkuntza horren osasunaren berri.

Argitu dezagun zertaz ari garen "ingurune digitala" aipatzen dugunean. Batetik, euskarazko Wikipediaren arabera "ingurune digital bat komunikazio-ingurune integratu bat da, non gailu digitalek bere barruko edukiak eta jarduerak komunikatzen eta kudeatzen dituzten". Bestetik, Euskararen Adierazle Sistemaren Ingurune Digitaleko lantaldeak zehaztaperen hau egin zuen: "Pertsonen artean, eta, makinaren eta pertsonen artean komunikaziorako eta interakziorako erabiltzen diren baliabide digitalek osatzen dute ingurune digitala". Hortaz, ingurune digitalaz ari garenean, ez gara esku-hartze esparru zehatz bat aipatzen ari, egon daitezkeen esparruetako bakoitzaren adierazpide digitala baizik. Alegia, euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egiteko hainbat esku-hartze proposatuko dira identifikatutako esparruetan (familia transmisioa, hezkuntza, komunikabideak...), eta kontuan hartu beharko da esparru horietako bakoitzak ingurune digitalean adierazpide zehatz bat duela. Hori horrela, esku-hartzeak proposatu beharko dira esparru horietako bakoitzaren komunikazio-ingurune berezi horretarako, dagoeneko gure bizitzetan sustraitu den ingurune digitalean euskara bizirik eta indartsu egoteko, euskaldunok komunikazio-ingurune horretan euskara erabiltzeko aukera izan dezagun.

Garrantzitsua da azpimarratzea ez garela bakarrik ari pertsonen arteko komunikazioaz, pertsonen eta makinaren arteko komunikazioa ere ziurtatu behar baita euskaraz. Izan ere, duela gutxira arte makinekin komunikatzea etorkizunean kokatzen genuen, eta konturatu gabe etorkizun horretan murgilduta gaude: ezin gara atzean geratu.

Hortaz, ingurune digitalean euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartuko ditu Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordeak emandako gomendioekin bat etorritik.

● Ikerketak

2017an Donostiako Miramar Jauregian izan ziren Uda Ikastaroetako jardunaldietan Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak aipatutakoa berresten da Agenda honetan: "Ezinbestekoa dugu euskararen inguruko ikerketa, norabidean asmatzeko. Euskararen errealitatea gure etxeetan, kaleetan, hezkuntza zentroetan edo lantokietan ezagutu egin behar dugu, etorkizunerako estrategiak diseinatzeko. Ezagutza, erabilera, jarrerak, hizkuntza hautua, transmisioa... neurtu beharreko hainbat adierazle daude, eta ez genuke bat ere baztertu beharko asmatu nahi badugu. Horrekin batera, hizkuntza politikak pertsonak izan behar ditu bere oinarrian eraginkorra izateko, eta motibazioa sustatu behar dugu. Euskarak gero eta funtzio gehiago betetzeko balio behar digu."

Euskararen normalizazioari lotutako jarduera guztietan du bere lekua ikerketak. Euskararen bilakaerari jarraipena egin behar zaiola esan nahi du horrek. Ezinbestekoa da ikerketa kuantitatibo klasikoekin jarraitzea, euskararen adierazle sistema egoki bat garatzea eta gizarte berri honen behar zein errealitate askotarikoak ulertzeko ikerketak sustatzea. Oinarrizko ikerketak sustatzea eta baliatzea ezinbestekoa izango da legealdi honetan ere: euskararen egoerari buruzko diagnostiko askotarikoak, hiztunen eta testuinguruen gaineko azterketak, proba pilotuak...

Oinarrizko ikerketan pentsamendu eta teorizazio berriak osatzeko aukerak erraztea ere bada hizkuntza politikaren egitekoa. Ikerketa aplikatuan, proiektu pilotuak eta probak egitea ezinbestekoa da euskararentzat. Programa berezituari jarraipen zuzena egin behar zaie: *Euskaraldia* egitasmoari, gazteen aisialdiko programa berezituari edota euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko planei lotutakoei, esate baterako. COVID-19ak euskararen eta euskalgintzan izan duen eragina ere neurtu beharrekoa da.

Eraldaketa sozialean gertatzen ari diren fenomeno berrien aurrean aktiboki jokatzeko, haien gaineko ezagutza behar dugu lehenik; beraz, horren gaineko ikerketak behar ditugu. Fenomeno berrien jarraipena egiteko, ezinbestekoa da haiei dagozkien marko teoriko nahiz metodologikoak finkatzea. Beharrezkoa da ikerkuntzan

eta praktikan lanean diharduten adituekin nahiz arituekin lankidetzan jarraitzea eta irtenbideak emateko auzolanerako jarreraz aurrera egitea.

XXI. mendean leku handia hartu duen ingurune digitala ikertzea ezinbestekoa da. Big Data baliatuz ikertu eta euskararen egoera deskribatzeko gaitasuna lortzea erronka handia da hizkuntza politikarentzat; azken batean, datuak jaso eta irakurketak egiteko gaitasuna izatea.

Gizarte-pertzepzioak, jarrerak, eraldaketarako aukerak, euskaren egoera soziolinguistikoa..., hainbat eta hainbat gai ikertzeak lagunduko digu etorkizuneko urrats garrantzitsuenen norantza zein den argitzen. Hortaz, haxe da laugarren ardatza: ikerketan sakondu eta eragitea ez ezik, ezagutza eta praktika berriak sortu eta zabaltzeko bideak irekitzen asmatzea.

4.

GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 dokumentuak kontuan hartu du *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)*, eta osagai ditu normalizazio plan hauek:

- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia
- Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- EITBko Euskararen Erabilerarako Plana

Horiez gain, gogoan ditu euskararen sustapenari buruz Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak emanak dituzten lege-araudiak, Agenda honen osagai diren berriazko erabilera planetan jaso diren dokumentu propioak (plan bakoitzean jasotakoak) eta Euskararen Aholku Batzordearen eskutik argitaratutako hainbat txosten eta argitalpen.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Programan zehaztutako konpromisoak eta ekimenak bideratzeko ardura izango du HPSk, bere mendeko hiru zuzendaritzen eta HABE erakunde autonomoaren eskutik.

Ekimen bakoitzaren ondoan, arduraduna zehaztu da sigla hauen bidez:

- HAHNZ (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza)
- ESZ (Euskara Sustatzeko Zuzendaritza)

- HIKZ (Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza)
- HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea)

Agenda hau Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoa da; beraz, guztion inplikazioa eta laguntza eskatzen du. Horregatik, eta euskararen zeharkakotasuna gogoan hartuta, Eusko Jaurlaritzako sail guztiekin lankidetzan arituko da HPS, Gobernu Programaren 6. herri-helburua lortzeari begira: euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea.

Alde batetik, sail guztien ardura izango da *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia (2018-2022)* garatzen jarraitzea, eta, epealdi horri dagokion amaierako ebaluazioan parte hartzea; horren segida hartuko duen plan berria definitzea ere guztion lana izango da. Beste alde batetik, *Euskaraldia* programa sustatzen eta antolatzen lagunduko dute sail guztiek.

Aipatutakoaz gain, ahalegin berezia egingo da 6. herri-helburua lortzeari begira Eusko Jaurlaritzan egiten diren jarduera guztiak Agenda honetan biltzeko. Hala ere, zerrenda ez da itxia; lankidetzat bidea zabalik dago eta aurrera egin ahala jarduera berriak identifikatu eta Agendan txertatuko dira.

Gauzatu beharreko ekimenak zehazteko unean, bi atal nagusi bereizi dira. Batetik, zuzenean HPSren ardurapekoak edo eskumenekoak direnak zehaztu dira; horien artean zehaztu dira Eusko Jaurlaritzako gainontzeko erakundeekin elkarlanean garatuko direnak. Bestetik, Hezkuntza Sailak garatuko dituenak jaso dira, hezkuntza sistemak euskararen normalizazioari egiten dion ekarpena estrategikoa delako.

Ekimen horiek guztiak eta horien mendeko ekintza zehatzak eraginkortasunez gauzatzeko, urtez urteko kudeaketa planean jasoko dira zehaztasunak: arduradunak, eragileak, jarduerak, jarduerak eraginkortasunez gauzatzeko baliabideak, jarduerak osatzeko sailetatik egindako ekarpenak, jarduerak gauzatzeko epeak eta egutegia, jarduera- eta emaitza-adierazleak...

1. KONPROMISOA	
Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabileran eragitea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.	
1.1. ekimena	Indarrean dagoen <i>Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren</i> ebaluazioa egitea eta, gizarte-eragile nagusiekin, hurrengo aldirako hizkuntza politika zehaztuko duen <i>plangintza egitea eta adostea.</i> (HIKZ)
1.1.1. azpi-eki.	<i>Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)</i> ebaluatu.
1.1.2. azpi-eki.	<i>Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)</i> berri eta gizarteratu.
1.2. ekimena	Legegintzaldi honetako <i>Euskararen Agenda Estrategikoa</i> onestea eta garatzea. (HIKZ)
1.2.1. azpi-eki.	<i>Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020</i> ebaluatu.
1.2.2. azpi-eki.	<i>Euskararen Agenda Estrategikoa</i> kudeatu eta jarraipena egin.
1.3. ekimena	Euskararen ezagutza handitzeko programak eta laguntzak areagotzea, oro har, egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasuna ezarri eta C1 mailara arteko doakotasuna eskainiz 16 eta 30 urte bitartekoentzat. (HABE)
1.3.1. azpi-eki.	B2 mailara arteko doakotasunerako bidea burutu, herri administrazio guztiak inplikatu.
1.3.2. azpi-eki.	C1 mailara arteko doakotasunerako bidea burutu 16 eta 30 urte bitartekoentzat.
1.3.3. azpi-eki.	Administrazio langileen euskalduntzea bultzatu, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde batzuekin lankidetzan: irakasleak (Hezkuntza Saila), Ertzaintza (Segurtasun Saila eta Arkauti Akademia), justizia administrazio langileak (Justizia Sailburuordetza), osasun arloko langileak (Osakidetza), herri administrazioetako langileak (IVAP)...
1.3.4. azpi-eki.	Hainbat ikerketa bideratu helduen euskalduntzeari begira.
1.3.5. azpi-eki.	<i>HEOCaren</i> mailak egiaztatzeko deialdiak egin (irekiak, itxiak, HOBE eta bereziak).
1.3.6. azpi-eki.	EAEz kanpo, <i>HEOCaren</i> mailak egiaztatzeko probetarako Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan aritu.
1.3.7. azpi-eki.	Euskaltegietak irakasleen prestakuntza bultzatu.
1.4. ekimena	Helduen kontzilio-premietara hobeto egokitutako eskaintza sustatzea, ikaskuntza-modalitate erdi-presentzialen bidez eta plataforma birtualen erabileraren bidez, betiere euskaltegiekin elkarlanean. (HABE)
1.4.1. azpi-eki.	<i>HEOCaren</i> maila guztietarako ikasmaterialak sortu, argitaratu eta gizarteratu (aurrez aurreko, jardun biko eta tutoretzadun autoikaskuntza ikastereduetarako).
1.4.2. azpi-eki.	Ikastaro eskaintza handitu.
1.4.3. azpi-eki.	Plataforma digitalen bidezko i(r)a)kaskuntza bultzatu.
1.5. ekimena	Helduen euskalduntze-sistemaren finantzazioa indartzea eta handitzea, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko euskaltegien finantzaziorako ohiko deialdien bidez. (HABE)
1.5.1. azpi-eki.	Helduak euskalduntzeko eta euskaltegien jarduna hobetzeko dirulaguntza deialdiak egin.
1.6. ekimena	Migratzaileei zuzendutako euskara ikasteko eta hobetzeko programak areagotzea, bai eremu sozioekonomikoan, bai hezkuntzaren eremuan, horien gizarteratzean eta laneratzean laguntzeko xedez. (HABE)
1.6.1. azpi-eki.	Migratzaileei zuzendutako euskara ikasteko eta hobetzeko programak areagotu, horien gizarteratzean eta laneratzean laguntzeko, Gizarte Politiketako Sailburuordetzarekin lankidetzan.

1. KONPROMISOA	
Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabileran eragitea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.	
1.7. ekimena	<i>Euskaraldia</i> bezalako euskararen erabilera sustatzeko programak indartzea, bai eremu formalean, bai eremu ez-formalean: aisialdia, gizarte-hedabideak, kirola, familia, hezkuntza sistema, kultura... (ESZ / HIKZ)
1.7.1. azpi-eki.	<i>Euskaraldia</i> egitasmoa gauzatu eta egonkortu, euskalgintzako erakunde publikoekin zein pribatuekin lankidetzan.
1.7.2. azpi-eki.	Haurrentzako eta gazteentzako euskarazko aisialdi jardueren eskaintza indartu eta zabaldu.
1.7.3. azpi-eki.	<i>Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2021-2024</i> garatu, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzarekin lankidetzan. Kirolean aritzen diren 18 urteko beherako gazteen euskararen erabileran eragitea eta jokalarien artean, entrenatzailearekin eta epailearekin harremanak euskaraz izatea sustatu nahi du planak.
1.7.4. azpi-eki.	Familia bidezko transmisioan euskararen erabileran eragiteko programak sustatu.
1.7.5. azpi-eki.	Hedabide guztietan euskararen presentzia eta erabilera handitu, bereziki online argitaratutakoetan.
1.7.6. azpi-eki.	Irakurzaletasuna sustatzeko programak bultzatu.
1.7.7. azpi-eki.	Gidabaimenak euskaraz ateratzeko baliabideak ipini eta aukera hori sustatu, Espainiako Dirección General de Tráfico-rekin eta IVAPekin lankidetzan.
1.7.8. azpi-eki.	Hiztun berriak euskarara hurbiltzeko ekimenak sustatu, gizarte integrazioan aurrera egin eta kultur aniztasunarekiko sentiberatasuna indartzeko.
1.8. ekimena	Hizkuntza Teknologia Plana onestea eta garatzea eta euskararen presentzia, euskarazko edukien sorkuntza eta horien ingurune digitaleko erabilera sustatzea. (ESZ / HIKZ)
1.8.1. azpi-eki.	<i>Hizkuntza Teknologien Ekintza Plana 2021-2024</i> garatu eta gizarteratu, bereziki Lehendakariarekin (<i>Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana</i> gogoan), Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailarekin, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzarekin, Hezkuntza Sailburuordetzarekin, Justizia Sailburuordetzarekin eta Kultura Sailburuordetzarekin lankidetzan.
1.8.2. azpi-eki.	EABko Ingurune Digitala Batzorde-atal Bereziak ingurune digitalerako emandako gomendioak garatu eta gizarteratu, bereziki Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailarekin, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzarekin, Hezkuntza Sailburuordetzarekin, Kultura Sailburuordetzarekin eta EITBrekin lankidetzan.
1.8.3. azpi-eki.	Sarean dauden euskarazko tresnak (itzultzaileak, hiztegiak...) lankidetzan sustatu.
1.9. ekimena	Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2020-2023 garatzea. (HIKZ)
1.9.1. azpi-eki.	<i>Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023</i> garatu, gizarteratu eta hainbat ekimen bultzatu, bereziki Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzarekin, SPRIrekin, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzarekin lankidetzan.
1.9.2. azpi-eki.	<i>Euskaraz Talentua Gara</i> proiektua sustatzen jarraitu, Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin lankidetzan, Lanbide Heziketako ikasleek praktikak euskaraz egiteko dituzten aukerak handitzeko eta enpresek euskara kudeatzeko dituzten baliabideak ezagutzeko nahiz handitzeko.

1. KONPROMISOA	
Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabileran eragitea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.	
1.10. ekimena	Adostasunetik abiatuta, herritarrei euskara bizitzaren eremu guztietan erabiltzea ahalbidetzen dieten diskurtso positiboak eta gizarte-aktibazioa lantzea. Horretarako, euskararen zeharkakotasuna azpimarratuko da eta Gobernuaren sail eta arlo guztien, sektore publikoaren eta, orokorrean, gizartearen inplikazioan sakonduko da (industria, berdintasuna, lanbide-heziketa, unibertsitatea, merkataritza, turismoa...). Erakunde arteko lankidetzatik lan egingo da. (ESZ / HIKZ)
1.10.1. azpi-eki.	Euskararen aldeko diskurtso positiboak adostu eta gizarteratu, askotariko gizarte-eragileekin lankidetzan.
1.10.2. azpi-eki.	Euskararen erabilera sustatzeko gizarte-aktibazioan oinarrituriko ekimenak garatu eta gizarteratu, euskalgintza sozialeko eta askotariko gizarte-eragileekin lankidetzan.
1.10.3. azpi-eki.	Euskararen erabilera sustatzeko sentiberatze kanpainak bideratu, euskalgintza sozialeko eta askotariko gizarte-eragileekin lankidetzan.
1.10.4. azpi-eki.	Gainerako politikekiko loturak eta interesguneak identifikatu, lankidetzan aritzeko: <i>Euskadi-Basque Country Estrategia</i> (Lehendakaritza), <i>Gobernantzako eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa</i> (Gobernantza eta Autogobernu Saila), <i>Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia</i> (Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumen Saila), <i>Gazteria Plana</i> (Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), <i>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana</i> (Emakunde), <i>Kultura Plan Estrategikoa</i> (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila)...
1.11. ekimena	Hizkuntza gutxituaren ezagutzari eta erabilerari dagokienez, gizarte-eremu desberdinen analisia bermatzen duten ikerketak sustatzea eta <i>Euskararen Adierazle Sistema</i> elikatzen jarraitzea. (HIKZ)
1.11.1. azpi-eki.	Euskal Izendegi Geografikoa elikatu, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzarekin lankidetzan.
1.11.2. azpi-eki.	Euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko ikerketak egin eta horien berri eman, Eustatekin lankidetzan.
1.11.3. azpi-eki.	Ikerketen emaitzen gaineko gogoeta egin eta lan-lerroak proposatu.
1.11.4. azpi-eki.	<i>Euskararen Adierazle Sistema</i> osatzen jarraitu eta gizarteratu, euskararen eremuko erakundeekin eta adierazle bakoitzari lotutako erakundeekin lankidetzan.

2. KONPROMISOA	
Hizkuntza eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatutako hizkuntza bizikidetzat baterantz aurrera egitea.	
2.1. ekimena	Administrazio Publikoetan Euskara Normalizatzeko VII. Plana (2023-2027) diseinatzea eta ezartzea, herritarrek administrazioarekin duten harremanean hizkuntza eskubideak errespetatzea helburu; edonola ere, pertsonen nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukaten erabateko askatasuna bermatuko da. Planaren beste xede bat izango da euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egitea, hain zuzen ere, sektore publikoaren lanerako hizkuntza gisa. (HAHNZ)
2.1.1. azpi-eki.	<i>Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia 2018-2022 ebaluatu.</i>
2.1.2. azpi-eki.	<i>Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia 2023-2027 garatu eta gizarteratu.</i>
2.1.3. azpi-eki.	EAEko euskara teknikariei prestakuntza egitasmo iraunkorra eskaini, IVAPekin lankidetzan.
2.2. ekimena	Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretuak onestea. (HAHNZ)
2.2.1. azpi-eki.	86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, gaurkotu.
2.2.2. azpi-eki.	47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena, gaurkotu.
2.2.3. azpi-eki.	222/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzeko dena, gaurkotu.
2.3. ekimena	Sozietate publikoentzako normalizazio plana abiaraztea. (HAHNZ)
2.3.1. azpi-eki.	Administrazioen menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoentzako hizkuntza normalizazio plana garatu, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere izan dadin.
2.4. ekimena	BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria sustatzea eta beharrezko egokitzapenak egitea horren eraginkortasuna handitzeko. (HIKZ / HAHNZ)
2.4.1. azpi-eki.	162/2017 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duena, gaurkotu.
2.4.2. azpi-eki.	Erakunde publikoetan zein pribatuetan euskararen erabilera eta kudeaketa egiaztatzeko BIKAIN berri eta sustatu.
2.5. ekimena	Urratsak ematen jarraitzea <i>Elebide</i> zerbitzuaren bidez herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. (HAHNZ)
2.5.1. azpi-eki.	<i>Elebide</i> hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuaren ekimena indartu.
2.5.2. azpi-eki.	Arartekoarekin zein Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin lankidetzat sustatu.

2. KONPROMISOA	
Hizkuntza eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatutako hizkuntza bizikidetzat baterantz aurrera egitea.	
2.6. ekimena	Neurriak hartzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta sektoreko eragileekin adostasunak lortzeko. (HIKZ)
2.6.1. azpi-eki.	123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa, egokitu, izapidetzen ari den kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuaren aurreproiektura.
2.6.2. azpi-eki.	Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko bidea egiten jarraitu, Kontsumobiderekin lankidetzan.

3. KONPROMISOA	
Erakunde arteko lankidetzaren indartzea euskararen lurralde guztietan.	
3.1. ekimena	Erakunde arteko eta EAEko eragile pribatuekiko lankidetzaren eta koordinazioaren indartzea koordinazio-organo desberdinen bidez (EAB eta HAKOBA). (HIKZ / HAHNZ)
3.1.1. azpi-eki.	Euskararen Aholku Batzordearen (EAB) Batzorde Osoa zein bere menpeko batzorde-atal bereziak (Ingurune Digitala, Hizkuntza eta Generoa, Eredu Sozioekonomikoa eta ESEP) kudeatu eta lanen jarraipena egin.
3.1.2. azpi-eki.	Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordearen (HAKOBA) Batzorde Osoa zein bere menpeko batzorde-atal bereziak kudeatu eta lanen jarraipena egin.
3.1.3. azpi-eki.	Hizkuntza politikaren gaineko programen jarraipena egin, horretarako sortutako batzordeen bidez.
3.2. ekimena	Euskararen lurraldeen arteko lankidetzaren eta elkarlana indartzea, 2017an adostutako <i>Hiruko Itunaren</i> bidez. (HIKZ)
3.2.1. azpi-eki.	Nafarroako Gobernuaren, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena (<i>Hiruko Ituna</i>) berretsi eta gizarteratu.
3.2.2. azpi-eki.	Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena berretsi eta gizarteratu.
3.3. ekimena	Hizkuntza politikak koordinatzea euskararen erabilera komuna eta nagusia den eremu geografikoetako erakunde publiko eta pribatu desberdinen artean, hizkuntza errealitate hori finkatzeko eta indartzeko. (HIKZ)
3.3.1. azpi-eki.	UEMarekin eta eremu geografiko euskaldunetako erakunde publikoekin zein pribatuekin lankidetzaren indartzea.
3.4. ekimena	Nazioartean hizkuntza desberdinen arteko lankidetzaren sustatzea, eleaniztasunarekin eta hizkuntzen arteko bizikidetzarekin lotutako nazioarteko programetan eta foroetan parte hartuz. (ESZ / HIKZ)
3.4.1. azpi-eki.	Berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoekin lankidetzaren sustatzea.
3.4.2. azpi-eki.	Hizkuntza aniztasunaren aldeko politika sustatu Europar Batasuneko erakundeetan, <i>Eskualdeetako edo Eredu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunarekin</i> bat eginez.
3.4.3. azpi-eki.	Euskararen errealitate eta biziberritze prozesuaren berri eman nazioartean, Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzaren bidez.
3.4.4. azpi-eki.	Hizkuntza eta kultura aniztasuna bultzatu, hizkuntza gutxituen ikuspegitik.

Aurretik adierazi bezala, Gobernu Programak hezkuntza eta hizkuntza lotzen dituzten konpromisoak jasotzen ditu. Horiek betetze aldera, Hezkuntza Sailak hainbat ekimen (jarriko) ditu abian:

54. KONPROMISOA	
Eleaniztasunean aurrera egitea, euskara hartuz ardatz nagusitzat.	
1. ekimena	Euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza finkatzea, hezkuntza sistema eleantun baterantz aurrera eginez. Sistema horrek euskara edukiko du ardatz nagusi gisa eta hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak txertatuko ditu ingelesaren prestakuntzan Lehen Hezkuntzatik; horrekin batera, ikasleen ingelesaren ezagutza hobetzeko jarduerak indartuko dira. Beraz, horretarako, zentro guztietan hedatuko dira hizkuntza proiektu eleantunak, horien errealitate soziolinguistikora egokituz eta euskara hartuz ardatz nagusitzat.
1.1. azpi-eki.	Hezkuntza komunitate bakoitzak -ikasleen komunikazio gaitasuna eta testuinguru soziolinguistikoa ezagututa- bere hizkuntza proiektua diseinatu eta garatu, eta berrikuntza didaktiko-metodologikoak abiarazi, ikasleen hizkuntza komunikaziorako gaitasunaren garapenari dagokionez.
1.2. azpi-eki.	Unibertsitatez besteko ikastetxe publikoetako eta pribatuetako irakasleen eta langileen hizkuntza gaitasunaren egiaztatze gintza eta goi mailako prestakuntza bultzatu, euskararen ezagutza, kalitatea eta esku-hartze pedagogikoa hobetze aldera.
1.3. azpi-eki.	Ikastetxeetan euskararen erabilera sustatu eta eskola giroa euskaldundu.
1.4. azpi-eki.	Ikasleei euskal giro aberatsa ezagutzeko eta euskaraz bizitzeko aukerak eta espazioak eskaini, eskolaz haratago.
1.5. azpi-eki.	Irakurzaletasuna sustatzeko eta euskal kultura transmititzeko ekimenak bultzatu.
1.6. azpi-eki.	Ikasgela barruko praktika pedagogiko eta metodologikoen berrikuntzaren gaineko ikerketa eta proiektu berritzaileak bultzatu, lehen eta bigarren hezkuntzan.
1.7. azpi-eki.	Ikasmaterialak euskaraz sortzeko eta hedatzeko ekimenak bultzatu, eta bereziki kalitatezko eduki digitalak euskaraz sortzeko esku hartu, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala aintzat hartuta.

5.

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 hau garatzeko aurreikusten diren kostu ekonomikoak ondoko taulan ageri dira. Ematen diren zenbatekoak Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontuetan dauden dotazioak dira. Hortaz, Agendaren xedea eta egitekoak defintzerakoan, aurreikusi da 2022, 2023 eta 2024an gutxienez antzeko kredituak izango direla Agendaren garapenerako. Hala, taulan zehaztu da HPSren 2021eko aurrekontua, eta 2024ra arteko aurrekontuen aurreikuspena egin da (urtero %3 igotzeko aurreikuspena, baldin eta horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa badago). Gogoan izan behar da planaren egiturak berak eskatzen duela aurreikuspena egin beharra.

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA		2021	2022	2023	2024
4711	Hizkuntza Politika ⁽¹⁾	64.929.000	69.017.498	72.419.623	75.799.833
	HPS	22.329.00	22.998.870	23.688.836	24.399.501
	HABE	42.600.000	46.018.628	48.730.787	51.400.332
4712	Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizazioa	10.545.000	10.861.350	11.187.191	11.522.806
4713	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	8.264.000	8.327.100	8.448.780	8.574.170
4714	Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa (IVAP)	753.000	775.590	798.858	822.823
4715	Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	44.278.000	45.606.340	46.974.530	48.383.766
Etxepare Euskal Institutua (% 40)		1.320.000	1.359.600	1.400.388	1.442.400
GUZTIRA		130.089.000	135.947.478	141.229.370	146.545.798

⁽¹⁾ 4711- Hizkuntza Politika izeneko programak bi azpi-programa jasotzen ditu: batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokion aurrekontua; bestetik, HABE erakundeari egiten zaion diru transferentzia.

Agendaren aurrekontua osatzeko, honako irizpide hauek erabili dira:

- HPSrekin batera jorratzen diren erabilera planetako baliabide ekonomikoak ez dira zehaztu Agenda honetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legeak esaten duena kontuan hartu da; hau da, 2021. urterako onartutako aurrekontu errealak jaso da lehenengo zutabean. Ondoren, urtez urteko kopuruak aurreikusteko, programa bakoitzari %3ko igoera ezarri zaio.
- Salbuespena da HABE erakundeari dagozkion partidetan erabilitako irizpideak: 4711- Hizkuntza Politika atalean zein 4713- Helduen Alfabetatze eta Bereusalduntzerako Erakundea atalean, kopuruak aurreikusteko kontuan izan da Euskaltegi Pribatuen Finantzaketa Berria eta 2021eko apirilean hartutako konpromisoa.

6.

ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANA

Euskararen zeharkakotasuna gogoan, ezinbestekoa da erakundeen arteko harremana bultzatzea. Horregatik, Agendaren garapenean partaide izango dira, neurri batean edo bestean eta bakoitzaren egitekoak ahaztu gabe, honako hauek: Eusko Jaurlaritza (HPSren bidez), EAeko gainerako herri-erakundeak, Euskararen Aholku Batzordea (EAB), Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA) eta askotarikozko gizarte-eragileak.

Barneko erakundeak

Administrazioan hizkuntza politika garatzeari begira, Eusko Jaurlaritzaren barruan bi batzorde nagusi daude. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra (batzorde politikoa) dago. Eusko Jaurlaritzako jarraipenerako organo gorena da, eta hizkuntza normalizazio prozesu osoaren ardura du. Besteak beste, eginkizun hauek ditu:

- HPSk hizkuntza normalizazio prozesuaren inguruan ematen dituen irizpideak eta egiten dituen proposamenak ezagutu, aztertu eta baloratu.
- Sail guztiei eragiten dieten erabaki estrategikoenak adostu eta abian jartzen direla bermatu.
- Saitetako euskara planek kudeaketan duten integrazio-maila aztertu eta jarraipena egin.

- Euskara planak aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen lagundu.

HPS, IVAP, sailtako zerbitzu zuzendariak eta erakunde autonomiadunetako zuzendari nagusiak dira batzordekideak.

Bestetik, Hizkuntza Normalizazio Teknikarien Batzordea (batzorde teknikoa) dago. Eusko Jaurlaritzako batzorde teknikoa da, tokian tokiko esperientziak elkarren artean trukatzeko eta proiektu bateratuak bideratzeko balio duena. Eginkizun hauek ditu:

- HPSk egindako proposamenei ekarpenak egin.
- Ekintza bateratuak eta pilotajeak antolatu.
- Abian jarritako ekintzen balorazioa egin.
- Etorkizunerako proposamenak egin.

Partaide dira HPS, IVAP eta sail guztietako eta erakunde autonomiadunetako hizkuntza normalizazio teknikariak.

Kanpoko erakundeak

Hizkuntza politikan eskumena duten herri-aginteen jarduna koordinatzeko organo instituzional nagusia da **Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA)**.

Batzordekide dira erakunde hauetako ordezkariak: Eusko Jaurlaritza -HPS, HABE, IVAP, Osakidetza, Justizia Sailburuordetza, Hezkuntza Saila eta Segurtasun Saila-, EAEko hiru foru aldundiak, EAEko hiru hiriburu-udalak, Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL) eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA).

HAKOBAREN egiteko nagusiak dira hizkuntza normalizazio gaietan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta hizkuntza politikaren lehentasuneko helburuei ekiteko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea. Batzordeak lantalde teknikoak antola ditzake, abian jarri nahi dituen proiektuak garatzeko.

EAETik kanpo, euskararen eremuan elkarlanerako egitura nagusia dugu **Hiruko Ituna**. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak eta Iparraldeko Euskararen

Erakunde Publikoak euskara sustatzeko lehenengo lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten 2017ko uztailaren 3an, Iruñean, eta 2021eko urriaren 22an beste lau urterako berretsi dute, Baionan. Hitzarmen horren xedea da hiru sinatzaileen arteko lankidetzeta bultzatzea euskararen sustapenari dagozkion alderdi jakin batzuetan.

Horrez guztiaz gain, erakundeen arteko harremanari dagokionez, aipatu behar da Estatuko hainbat erkidegotako gobernuekin hizkuntza politika alorrean dagoen lankidetzeta. 2007an, Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak hizkuntza politika arloko lankidetzeta-protokolo orokorra sinatu zuten, eta, ondoren, 2008an Balear Uharteetako Gobernuak eta, 2017an, Valentziako Generalitatea eta Nafarroako Gobernuak atxiki zitzaizkien. Hizkuntza propioa duten eta ofizialtasun-estatusa duten autonomia erkidego guztien lehen lankidetzeta esparrua da, dagozkien autonomia-estatuetan ezarritakoaren arabera. Protokoloak esparru orokor bat eta metodologia bat finkatzen ditu komunikazio arloan elkarrekiko lankidetzeta garatzeko, bilakaera soziolinguistikoaren jarraipena egiteko azterlan eta ikerketei buruzko informazioa trukatzeko, argitalpen elektronikoak zabaltzeko, hizkuntza eskubideen arloan emandako urratsak zabaltzeko eta hizkuntza planak ezartzeko esperientzietarako, besteak beste.

Bestalde, Estatuko Administrazioarekin dagoen lankidetzeta aipatu behar da. Espainiako Estatuak *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* 1992an onartu eta 2001ean berretsi zuen (ikus 2. atala). Europako Kontseiluak hiru urtez behin egiten du horren betetze-mailaren ebaluazioa. Estatuak gutunaren sinatzailea da, eta berari dagokio ebaluazio txostena osatzea. Hala ere, 2006tik aurrera, erkidegoetako gobernuen laguntza izaten du Estatuak txostena osatzeko, eta horren inguruan lankidetzeta lerroa zabaltzeko, bereziki, Hizkuntza Ofizialen Bulegoarekin.

Horrez gain, aipatu behar da, 2018tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak Hizkuntza Ofizialen Kontseiluak deitutako hiru bileratan parte hartzeko aukera izan duela. 2021eko uztailaren 1ean izandako bileran, Lurralde Politika eta Funtzio Publikoako Ministerioaren ordezkariak elkarlana areagotzeko borondatea azaldu zuten. Beraz, lankidetzarako aukerak aztertu beharko dira eta horietan sakondu.

Estatuko Administrazioarekin abiatu den lankidetzaren adibidea da Lurralde Politika Ministerioaren eta HABEren arteko lankidetzeta-hitzarmena; hitzarmenaren edu-

kia alde bien artean lantzen ari da, eta helburua da EAEn Estatuko Segurtasun-In-dar eta Kidegoetako langileak euskalduntzea.

Nazioartean, NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sarearen eskubide osoko kide da Eusko Jauriaritza, HPSk ordezkaturia, 2007an sortu zenetik. Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sareak Europako hizkuntza konstituzional, eskualdeetako eta estatu txikiak hiztunen interesak ordezkatzeko du helburu nagusi. Estatu-estatu nahiz autonomia erkidegoetako gobernuak, GKEak eta hizkuntza plangintzaren alorrean lanean diharduten erakundeak biltzen ditu. Bere xedea da agintari politikoen hizkuntza aniztasuna zehar-balio eta Europar Batasunaren politikaren helburu gisa sustatzea. Ahots bakarrez diharduen oinarritzko plataforma da, eta Europako agintari politikoen eta Europar Batasuneko erakundeen aurrean hausnarke-tak, ekimenak eta ekintzak proposatzen ditu.

Bestalde, aipagarria da nazioarte mailako lankidetzako programetan HPSk egiten duen ahalegina. Testuinguru horretan kokatu behar dira, besteak beste, Garabide Elkarteari eta Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrari egiten zaizkien ekarpenak, hizkuntza gutxiak dituzten gizarteetan eleaniztasuna susta dezaten.

Eragile ekonomikoak eta sozialak

Euskararen normalizazioan eta hizkuntza politika arloan herritarren parte-har-tzea bideratzeko gune nagusia da **Euskararen Aholku Batzordea (EAB)**; 10/1982 Legeak, 29. artikuluan, euskararen erabileraren normalizazioan laguntzeko harre-man-organoa eratzea aurreikusten du, aipatutako legea ezarri eta gauzatzeari be-gira erakundeen ahaleginak aztertu, bideratu eta koordinatzeko.

EAB elkarrizketarako bilgunea da. Izaera hori islatzeko, hasieran honako hauek osatu zuten: lurralde historikoetako ordezkariak, Euskal Herrian sendo errotutako erakundeak eta elkarteak, eta euskararen arloan ospe handia zuten norbanakoak. Gaur egun ere, erakunde publiko eta pribatuetako ordezkariak eta euskararen ar-loan adituak diren norbanakoak osatzen dute.

Era berean, EAB arautzen duen 99/2020 Dekretuan aurreikusita dago batzorde-atal bereziak sortzea, gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko. Horrela, 2020-2024 legegintzaldiko lehen bileran, 2020ko abenduaren 2an, EABren Batzorde

Osoak 4 batzorde-atal berezi eratzea proposatu zuen, hizkuntza politika arloan lehentasunezkoak diren estrategiak garatzen laguntzeko. Batzorde horietako bakoitzean pentsamendua eraiki, diskurtso berrikuntzetarako ariketak egin, eremu berrietako aukeratan sakondu eta etorkizunera begira jartzea da asmoa. Hauexek dira batzorde-atalok:

● Eremu sozioekonomikoa

Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Planaren jarraipena egingo du, eta alor horretan politika publikoen trataera egokia eta anitza zainduko du. Helburu nagusi hauek izango ditu:

- Eremu sozioekonomikoan euskararen erabileraren ezarpenean jauzia emateko gogoetak egin, azterketak sustatu eta estrategiak lantzea.
- Planari lotutako helburuei erantzuteko proiektuak eta ekimenak proposatu eta jarraipena egitea.
- Lantaldeak martxan jarri eta koordinatzea.

Horrez gain, hauexek izango dira egiteko zehatzak:

- Arloaren zaintza bermatzea: urteko plangintzarako proposamena egin eta planari jarraipena zein ebaluazioa egitea.
- Lan-ildo berezitueterako lantaldeak sortu eta jarraipena egitea (proiektu pilotuak, azterlanak, arlokako taldeak...).
- Gizartean arloaren gainean egiten diren ekimenen jarraipena egin eta jardun egokiak prestigiatzeko zabalkunde bideak lantzea.
- Batzordean parte hartzen ez duten eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko eragile nagusiekin garatu beharreko harreman dinamika zehaztu eta gauzatzea.

Helburu eta egiteko horiek guztiak betetzeko, aurreikusita dago batzorde-atalaren osaera anitza izatea, betiere eremu sozioekonomikoari zuzenean lotutako arloei erreparatuta: enpresa elkarte, enpresa, sindikatu, hizkuntza aholkularitza, eta abarretan esperientzia duten adituak izango dira batzordekide. Erakunde publikoekiko lotura eta inplikazioa ere bilatuko da.

● Hizkuntza eta generoa

Euskararen eta feminismoaren inguruko jakintza teoriko eta praktikoaren transmisioan laguntzeko eratu da: alor horretan ari direnak elkarrekin harremanetan aritzeko foroa, zubiak sendotu nahian. Egiteko nagusi hauek izango ditu:

- Hizkuntza eta generoa batzen dituen ezagutzaren mapa osatzen jarraitu eta herritarren eskura jartzea.
- Ikerketa-ildo eta proiektu berriak sustatzea.
- Gizartearen egitasmoekiko elkarlana bultzatzea.
- Hizkuntza politiken eta berdintasunerako politiken jardunbide eredugarriak aztertu eta zabaltzen laguntzea.

Batzordekideak hainbat lan-esparrutako adituak dira; HPSko ordezkariak eta laguntza teknikoaz gain, erakunde eta arlo hauetan ezagutza dutenak: Emakunde, unibertsitatea, mugimendu feminista, kultur mundua, komunikabideak... Gizartearen, eragileen eta erakundeen arteko zubiak sendotu nahi dira osaera horren bidez.

● Ingurune digitala

Helburu nagusizat du EABren Batzorde Osoari laguntzea bere eginkizunetan, bereziki ingurune digitalari lotutakoetan. Ildo horretatik, ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilera indartzeko har daitezkeen neurriei eta gauzatu daitezkeen jardueri buruzko gomendioak ematea du egiteko nagusia. Egiteko zehatza, berriz, proposamenak egitea eta gomendioak ematea da, ildo estrategiko hauei begira:

- Ingurune digitalean euskarazko edukiak sustatzea.
- Ingurune digitalerako euskarazko tresna, aplikazio eta baliabideak sustatzea.
- Ingurune digitalean euskarari eta euskarazko baliabideei ikusgarritasuna ematea, erabilera areagotzeko.
- Zaintza teknologikoa ziurtatzea.

Batzorde-atal honek urteetako ibilbidea du. Legealdi honetarako, osaera berri du; kontuan hartu da euskararen eta ingurune digitalaren ezagutza izatea, eta arlo honetan eskarmentua duen aditua izatea. Horrez gain, azken urteotan batzordekide izan direnen perfilari (Interneteko edukietan, bereziki ikus-entzunezkoetan, espe-

rientzia duten adituak; euskarazko tresna eta baliabide digitalen sorkuntzan eta zabalkundearen esperientzia duten adituak), honako hauek gehitu nahi izan zaizkio:

- Administrazio publikoetan ingurune digitalean eskumena duten erakundeetan edo ataletan esperientzia duten kideak (EITBren ikuspegia eskain dezaketenak, Eusko Jaurlaritzan Berrikuntzaren edo Teknologiaren atalen ikuspegia eskain dezaketenak; EHUko Hitz Zentroko esperientziak partekatu ditzaketenak).
- Software librearen arloko ezagutza duten kideak.

Osaera berriari begira, aintzat hartu da batzorde-atal honek egindako bide-orri berria (*Euskararen ingurune digitala: gomendioak 2021-2024*), legealdi honetarako hainbat gomendio egiten dizkiena Eusko Jaurlaritzari ez ezik, baita euskara ingurune digitalean sustatzeko bidelagun izan nahi duten erakunde publikoei zein pribatuei ere. Dokumentu horretako gomendioetako bat da *Hizkuntza Teknologien Ekintza Plana* zehaztea eta idaztea, eta helburu hori islatuta dago Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Programako konpromisoen artean.

Oro har, esan daiteke batzorde-atal honen osaerak legealdiko bide-orrian zehaztutako gomendioak eta ekintzak bide eraginkorrenetik bideratu nahiari erantzuten diola. Horrez gain, erakunde publikoetako eta pribatuetako esperientziak partekatzeko moduko elkargunea izatea ere bilatu da.

● ESEP

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa eta egitasmo berria landuko ditu. Izan ere, legealdi honetan gauzatu behar da 2012an onartu zen planaren ebaluazioa, eta era berean, plan berria proposatu eta onartu behar da. Bide horretan, urrats hauek daude aurreikusita:

- 2012ko planaren adierazleen azterketa egitea eta emaitzak batzordean aurkeztea, batzordeak berak ebaluatu ditzan.
- Bitartean, plan berrirako urratsak emango ditu HPSk. Plan berria sortzeko prozesu bat irudikatu du HPSk, eta horren azterketa, jarraipena eta ekarpenak egitea egokituko zaio batzorde-atal honi.

Honako elementu hauek batuko dira bide honetan, beraz:

- Indarrean dagoen ESEPen ebaluazio txostena, argituko diguna zer lorpen izan ditugun eta zertan sakontzea falta zaigun.
- 2021ean, plan berria sortu aurretik, gizarteak euskararen gainean dituen narraitiben azterketa egingo da. Azterketa horren txostena EABren esku jarriko da.
- Ebaluazioaren eta narraitiben azterketatik plan berrirako gogoeta eta proposamenen prozesua hasiko da, eta horretan murgilduko da, berariaz, batzorde-atala.
- Batzorde-atal honetan ateratzen den ezagutza / praktika eta proposamen berrien emaitza izango da etorkizuneko egitasmoa.

Lan horiek guztiak gauzatzeko osaera anitza izan behar du batzorde-atalak, euskararen normalizazioaren ikuspegia arlo publikotik zein pribatutik landuz. Bide horretan, euskararen etorkizunari buruzko lanetan, eztabaidetan eta foroetan parte hartzen duten erakunde eta enpresetan ezagutza eta esperientzia duten adituen laguntza eskatuko da, ahalik eta plan eraginkorrena eta zentzuzkoena eratu nahian.

EABren Batzorde Osoa zein batzorde-atal bereziak izango dira, beraz, *Euskararen Agenda Estrategikoaren* kudeaketa, jarraipen eta ebaluaziorako gizarte-eragileen zein eragile ekonomikoen parte-hartzea bermatzeko bidea. Hala ere, gaiaren arabera, beste gune edo parte-hartzerako bide batzuk sustatu ahalko dira.

Aurreko legealdietan hasitako gizarte-eragileekiko elkarlanerako apustu garbia ondo islatzen dute EABren Batzorde Osoaren zein batzorde-atal berezien helburuek eta zereginiek, baita batzorde guztietako osaerek ere. Esan beharra dago batzorde-ataletan ez direla, berez, erakundeak eta enpresak ordezkatzeko; aditu sare bat osatu nahi da, euskararen arloan lan egiten duten ahalik eta entitate gehien ezagutza dutenena, entitate horietan esperientzia duten adituena, hain zuzen.

EAB ez da gizartearen parte-hartzea sustatzeko bide bakarra. Eusko Jaurlaritzako HPSrentzat lehentasunezkoa da lankidetzaren sareak zabaltzen eta sakontzen jarraitzea eta, horregatik, gizartearen zein euskalgintzaren ordezkari nagusiekin etengabeko harremana sustatzen jarraituko du: Euskaltzaindia, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Euskaltzaleen Topagunea, Hekimen / Hedabideak, euskaltegiak, unibertsitateak, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak, Labayru Fundazioa, Puntueus Fundazioa, Euskalit Fundazioa, Soziolinguistika Klusterra..., eta euskararen sustapenean lan egiten duten enpresa, elkarte eta era askotako entitateak.

Beste batzorde bat Euskaraldiaren Koordinazio Batzordea da, Euskal Herri osoko erakunde publiko nagusiek (Eusko Jauriaritzako HPSk, Nafarroako Euskarabideak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskal Elkargoak) eta Euskaltzaleen Topaguneak osatzen dutena. Batzorde honen egiteko nagusiak hauek dira: ekimena diseinatu eta koordinatzea, komunikazio estrategia garatu eta ekimenaren garapenerako baliabide orokorrak adostu eta eskaintzea, baita ekimena aztertu eta neurtzeko ikerketak garatzea ere.

Horrez gain, Euskarazko Hedabideen Mahaia dugu, elkarlanerako gunea. Mahaia-
ren osaerari dagokionez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eusko Jauriaritzako HPSk parte hartzen dute, horiek erabakitzen dituzten ordezkarien bitartez, eta, sektorearen ordezkariak Hekimen elkartearen bidez gauzatzen da, unean-unean elkarteak berak erabakitzen dituen ordezkarien bidez. Egiteko nagusiak hauek dira: sektorearen beharrian eta erronkak mahai gainean jarri eta horiei buruzko diagnostiko amankomunak egitea, eztabaidak garatu eta, ahal den heinean, irtenbide adostuak bilatzea.

Euskara eta genero berdintasuna batzen dituen Bitariko Batzordea sortua dute Emakundek eta HPSk. Bi erakundeek proiektuak elkarbanatu, eta bi eremuontzat interesgarriak diren proiektuak nahiz gogoetak sustatu eta partekatzea du helburu.

Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023 dela eta, planak berak agintzen dituen egitekoei jarraipena egiteko batzorde teknikoa sortuta dago HAKOBAREN barruan. Gainera, BIKAIN ziurtagiriaren ebaluazio prozesuari eta emaitzei jarraipena egiten dion Artezkaritza Kontseilua gidatzen du HPSk. Azkenik, finantza entitateen eta azalera handiko merkataritza guneen arduradunek osatutako batzorde bana ere eratuta daude.

Ikerketa alorrari dagokionez, *Hiruko Ituna* eta HAKOBA osatzen duten kideen arteko batzorde askotarikoaren artean, *Euskararen Adierazle Sistema* garatu eta zabaltzen duen Batzorde Sustatzailea aipagarria da.

Arnasguneetan euskararen ezagutza nahiz erabilera sustatzen, herritarrek ahaldunduz eta gizartearen arnasguneen garrantzia jakinarazten duen batzorde bat ere bada UEMAK, Nafarroako Euskarabideak eta HPSk osatuta.

Euskaltzaindia euskarari dagozkion gaietan erakunde aholku-emaille ofiziala izanik, bere jardueraren suspertzeko eta bermatzeko esparru hitzarmena dugu. Eusko Jaur-

laritzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Euskaltzaindiaren artean sinatutako hitzarmena da, eta bere barruan sortutako Jarraipen Batzordean hitzarmenean jasotako jarduerak aztertu eta garatzen dira.

HABEri lotuta, hiru batzorde nagusi nabarmendu behar dira:

- HABEren eta EUDELen arteko Batzorde Mistoa, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 7. xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituz osatutakoa. EUDELeke eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko ordezkariak daude bertan, eta udal euskaltegien finantzazioa aztertzea du helburu.
- HABEren eta euskaltegien arteko Bitariko Batzordea osatzen dute euskaltegi publikoetako zein pribatuetako 7 ordezkariak eta HABEko zuzendariak, zerbitzaburuak eta teknikariak. Dirulaguntza-lerro eta esparru akademikoko gai orokorrak eztabaidatzen dira batzorde honetan.
- Azterketa-batzordea, 2020ko irailaren 9ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena betez osatutakoa. Par-taide hauek ditu: HABEren Hizkuntzaren Didaktika zerbitzaburuak, euskaltegi publikoetako 3 ordezkari, euskaltegi pribatuetako eta euskararen autoikas-kuntzarako zentroetako 6 ordezkari eta egiaztatze aldirako hiru lurralde-ar-duradunak, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko arloetako arduradunak. Egite-ko nagusia azterketa deialdiak antolatzea du.

Bestalde, Agenda honetan lehenetsuneko tokia eman nahi zaio entitate pribatue-kin batera HPS egiten ari den lanari. Euskararen Aholku Batzordeko ordezkariak eta euskalgintzako eragileak gaindi, entitate pribatuen konpromisoaren nahiz lankide-tzaren ikusgarritasuna nabarmendu nahi da, bereziki, Gobernu Kontseiluak onartu zuen *Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023* dokumen-tuari atxikita.

Hain zuzen ere, eremu sozioekonomikoari atxikitako entitate pribatuek euskara sus-tatzeko hartutako konpromisoak eta horiekin egin nahi den lankidetza azpimarratu nahi da horrela. Batetik, EAEko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza es-kubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuaren ondoriozko bi hitzarmene-tan parte hartzen duten erakunde pribatuak ditugu: azalera handiko merkataritza

zentroak eta finantza entitateak. Bestetik, Lanhitz deialdian, BIKAIN ziurtagiriaren prozesuan eta planari lotutako proiektu pilotuetan parte hartzen ari diren enpresak daude: zerbitzu enpresak edo enpresa industrialak.

Entitate pribatuen ekarpena ezinbestekoa izango da euskararen ezagutzatik erabilerarako urratsa emateko. Euskararen ezagutza gero eta handiagoa duen gizarte honetan, euskaraz lan egin eta kontsumitzeko aukerak handitzea dagokio hizkuntza politikari, Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin harremanetan.

Entitate pribatu horiez gain, euskalgintzaren eremuan sartu gabe, badira euskara eta euskal kultura hauspotzen ari diren elkarte eta erakundeak: euskal gorren elkarteak, ijitoen elkarteak, kirol club edo elkarteak, guraso elkarteak... Horiekin guztiekin entzute eta lankidetzak ariketa egitea ezinbesteko zaigu, gizarte berdinazale baten alde egin nahi badugu.

Hizkuntza politikaren ezaugarria ez ezik, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzaren arduraz izango da lankidetzak gauzatzea; hain zuzen, sail bakoitzaren alorretik euskararen eragitea zeharkako politikak garatzea delako. Hezkuntza Sailari dagokio, esate baterako, haur etorkinentzako nahiz laguntza berezituak behar dituztenentzako hizkuntza errefortzuak bermatzea, murgiltze eredu eraginkor bat lortzeko; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Sailari, berriz, euskararen bidez gizartearen integratzeko aukerak zabaltzea, familiekin harremanetan jarritz euskara ikastearen onurak erakusteko; Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Sailari dagokio jardura ekonomikoan euskara sustatzea irabazi ekonomiko modura; berdin Lana eta Enplegua Sailari, euskara lanerako ere jakitea gizarte ongizatea lortzeko tresna izan daiteke eta. Euskararen zeharkakotasuna erakusten duten adibide batzuk besterik ez dira aipatu direnak.

Hala, euskararen zeharkakotasuna bermatzea dagokigu gizartearen eremu guztietan. Pertsonak erdigunean jarrita, auzolanean, erabakiak adostasunean hartuz, gizarte gero eta integratzaileagoa lor dezagun euskararen bidetik ere.

7.

GOBERNANTZA, KUDEAKETA ETA JARRAIPENA

Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, euskal herritar guztiek dute hizkuntza ofizial biak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Eskubide horiek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezzen, herri-aginteeek horien erabilera bermatuko dute.

18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, EAEko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen kontuan hartzen badugu, 14. artikulua Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio, besteak beste: hizkuntza politika eta euskara sustatzea. Horren ildotik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 73/2021 Dekretuak, otsailaren 23koak, sail horren egitekoak eta jardun-arloak ezartzen ditu.

Euskararen erronkei ezin die Eusko Jaurlaritzak soilik erantzun; beharrezkoa da gizarte osoaren bultzada. Horregatik, sailak **lankidetza** bultzatu nahi du: lankidetza Gobernu barruan, herri-erakundeekin, foru aldundiekin eta udalekin, baita gizarte-eragileekin ere.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko urriaren 28ko Legebiltzarreko Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean esan bezala, "**governantza zabala eta partekatua** eskatzen du euskarak. Partekatua, erakundeon lankidetzaren zentzuan; partekatua, alderdi politikoen adostasunei dagokienez; partekatua, euskalgintzarekiko; eta partekatua gizarte osoarekin." Izan ere, "euskararen

erronkei ezin die Eusko Jaurlaritzak soilik erantzun; gizarte osoaren bultzada behar du: Euskal Herriko gainontzeko herri-erakundeen eta herritarren ordezkariena, eus-kalgintzarena, norbanakoena. Denon hauspoa behar du euskarak erabateko normalizatorantz urratsak eman nahi baditugu. Eta nahi dugu. Horregatik, hori izan da gure printzipio nagusia: elkarlana, auzolana, denon lana. Printzipio hori egon da eta egongo da legealdi honetan ere gure jardunaren oinarrian."

Gobernantza partekatu honetan HPSri dagokio lidergoa izatea. Agenda honetan ezarritako helburuak aurrera eramateko egitekoak zehaztea dagokio, lehen-lehenik. Zeharkako politiken gaineko gogoeta zabaldu eta jarduerak sustatzeko eragile lana eta jarraipena egitea ere badagokio. Oro har, administrazioan gauzatzen den hizkuntza politikaren iparra zedarritu, helburuak adostu eta jarraipena egitea dagokio.

HPSri dagokio, halaber, euskalgintzarekin lankidetzeta estuan jardutea: gizarte-eragileekin, elkarteekin eta enpresa pribatuekin ere lankidetzan aritu eta helburuak adostea euskararen normalizazioan aurrera egiteko.

Kudeaketari dagokionez, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakian ezarritako prozedurari jarraiki izapidetu da *Euskararen Agenda Estrategikoa*. Horrela, aginduzko txostenak jaso ondoren, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Gobernu Kontseiluari aurkeztu dio Agenda, hark onets eta Eusko Legebiltzarrerara bidal dezan.

Bestalde, planifikatutako aldian sortzen diren gorabeherak, baldin eta planaren alderdi estrategiko edo ekonomikoetan aldaketa nabarmenak eragiten badituzte, Gobernu Kontseiluari jakinaraziko zaizkio, Koordinaziorako Zuzendaritzaren, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren eta Aurrekontuen Zuzendaritzaren txostenak jaso ondoren.

Euskarari eman zaion zeharkako izaeraren ondorioz, *Euskararen Agenda Estrategikoa* Eusko Jaurlaritzaren osoaren plan estrategikoa da, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kudeatuko du. HPSk izango du Agendaren gidaritzza, eta berak koordinatuko du hizkuntzaren normalizaziorako Eusko Jaurlaritzako sail eta organo guztiek izango duten jarduna. HPSren mendeko hiru zuzendaritzak eta HABEko zuzendaritza dira Agendaren arduradun nagusiak, sailburuordea buru dutela:

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza (HAHNZ)
- Euskara Sustatzeko Zuzendaritza (ESZ)

- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza (HIKZ)
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)

Agendaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea eratuko da, eta kide hauek izango ditu:

- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (batzordeburua)
- Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Hezkuntza sailburuordea
- HABEko zuzendari nagusia
- Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria
- IVAPeko zuzendaria
- Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko ordezkaria, gutxienez zuzendari mailakoa

Era berean, erakunde hauetako ordezkariak –gutxienez zuzendari mailakoak– ere partaide izango dira:

- Osakidetza
- Justizia
- Ertzaintza
- EITB
- Eustat
- Emakunde

Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, urte bakoitzaren hasieran, hartutako konpromisoerik erantzuteko urte horretan abian jarri beharreko jarduerak zehazteko eta aurreko urteko planaren jarraipena egiteko.

Agendan xehatutako konpromiso eta ekimen bakoitzaren betetze-maila urterik urte neurtuko da, horietako bakoitza gauzatzeko ezarri diren jarduerak maila kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertuz. Horrela, maila kuantitatiboan, urteko planean ezarritako jarduerak bete diren ala ez adieraziko da, orotara, gauzatuko jarduera kopurua zein izan den jasoz; maila kualitatiboan, aldiz, jarduera bakoitzaren betetze-maila jakinaren irakurketa kualitatiboa egingo da, betiere, konpromisoari eman zaion erantzunaren egokitasuna neurtzeko.

Horrez gain, aurreko Agendaren ebaluazio osoa egingo da datu eguneratuak eskuratzeko direnean, Agenda honetan jaso den diagnostikoaren osagarri. Era berean, datu eguneratuak baliatuko dira Agenda berri honen kudeaketa plana gauzatzeko.

Agendan ezarri diren konpromisoak gogoan hartuta eta helburu estrategikoei lotuta, adierazle neurgarri nagusiak zehaztu dira. Horrela, helburu estrategikoak lortzeko ezarritako ekintza edo jarduera nagusiek adierazleak izango dituzte. Adierazleok bat datoz Gobernu Programako konpromisoen jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin.

Eskura ditugun azken datuak kontuan hartuta -*VI. Inkesta Soziolinguistikoak* ematen dizkigun 2016ko datuak, nagusiki-, asmoa da jarraian zehazten diren adierazle nagusiotan aurrera egiten jarraitzea:

Helb.	Adierazleak	2021 ²	Iturria
1	Euskaldunen bilakaera	895.942	<i>Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika</i>
	Gazte euskaldunen kopurua (< 30 urte)	424.029	<i>Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika</i>
2	Euskararen erabileraren bilakaera	% 20,5	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	Euskararen erabilera arloka		
	• etxekoa	% 19,0	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	• lagunartekoa	% 21,4	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	• formala	% 21,7	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	• lankideekin	% 25,3	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	• eskolan (LMH4 / DBH2)	LMH4 % 58,5 DBH2 % 40,7 (2017)	<i>Arrue proiektua</i>
	• ingurune digitalean ³	% 17,6	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	• eskola kirolean	% 70,1	<i>Foru aldundiak</i>
	• hedabideetan	% 18,4 (2020)	<i>CIES</i>
Euskararen transmisioa			
• 1. hizkuntza euskara	% 18,4	<i>Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika</i>	
• 1. hizkuntza biak	% 6,3	<i>Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika</i>	
• 1. hizkuntza erdara	% 75,3	<i>Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika</i>	
3	Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera	% 65,0	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
	BIKAIN ziurtagiria lortu duten erakundeak	17 (2020)	HPS
	Konponbide egokia izan duten Elebideko intzidentziak	% 94,7 (2020)	HPS
1-4	Euskararen erabilera sustatzeko inbertsioa	130.089.000	HPS

Urtez urteko jarraipena baliagarria izango da legegintzaldi amaierako ebaluazio txostena egiteko garaian behar diren datuak eta informazioa eskuratzeko. Horrela,

2. 2016ko datuetan oinarritutako informazioa da. Horrela ez denean, zehaztu egingo da.

3. Sare sozialetan.

Agendaren indarraldia amaitzen denean, Agendaren ebaluazio txostena egingo da. Datuen deskribapen edo neurketa hutsa gaintitu, eta hartutako erabakien eta ezarritako neurrien eraginkortasunari buruzko ikuspegia ematen saiatuko da. Horrela, hurrengo jarduera-zikloa berrabiarazteko eta etorkizunerako erabaki egokiak hartzeko oinarri sendoa izango da.

8.

ONARRIZKO DOKUMENTAZIOA

Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016. Eusko Jaurlaritza, 2014.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016. Jarraipena eta ebaluazioa. Eusko Jaurlaritza, 2016. (Argitaratu gabea)

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020. Eusko Jaurlaritza, 2018.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020. Jarraipena eta ebaluazioa. Eusko Jaurlaritza, 2020. (Argitaratu gabea)

17+1 helburua: hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea. UNESCO Katedra. [<https://www.ehu.es/eu/web/mho-unesco-katedra/17-1-bidea-egiten>]

2020-2024 Gobernu Programa. Eusko Jaurlaritza, 2020.

BIKAIN ziurtagiriak (HPS, barneko informazioa).

COVID-19 pandemiak eragindako kalteak ezagutzeko ikerketak (HPS, barne txostenak).

EAS: Euskararen Adierazle Sistema. [<https://www.euskadi.eus/eas>]

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. [<https://www.boe.es/boe/dias/2001/09/15>]

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Euskararen Aholku Batzordea, 2012.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua. Euskararen Aholku Batzordea, 2015.

Euskaraldia I. Eraitzen azterketa. [https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2019/09/Txostena_EUS.pdf]

Euskaraldia zenbakitan. [https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2019/01/EUSKARALDIA_ZENBAKITAN.pdf]

Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika. Eusko Jaurlaritza, 2018.

Euskararen ingurune digitala: gomendioak 2021-2024. Euskararen Aholku Batzordea, 2021.

Hizkuntzen mundua: munduko hizkuntzei buruzko txostena. Amorrortu et al, 2004.

VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016: EAE. Eusko Jaurlaritza, 2019.

VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016: EAE. Eusko Jaurlaritza, 2020.

Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023.

Hizkuntza Teknologien Ekintza Plana 2021-2024.

Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2021-2024.



EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2021-2024

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

